



Herriko tabernen auzia

12 urteren
ondoren, justizia
absoluzioa da

Inauteriak

Emakumeen
transgresioa
argazkitan

Komando Autonomoak


Zer izan ziren,
zer aldarrikatu
zuten, nora
iritsi ziren

Abortu eskubidea

Rajoy gorritu
zuten ekintzaileak

Net Hurbil

Intsektiziden
kontrako
desobedientzia
zibila ardogintzara
iritsi da



Jean-Marie Harribey, Attac

«Ekoizpenaren kalitatea ezinezkoa da
lanpostuen kalitaterik gabe»



Gizarte ekonomia

Postkapitalismorantz bidea egiten

- **Erreportajea** Gizarte ekonomiaren erradiografia
- **Elkarrizketa** Enekoitz Etxezarreta
- **Esperientziak** Gureak Taldea, Heroslam SAL, Fiare, Ampo S.Coop.



Azaleko argazkia:
DAVID HELMAN
Azala: GARBINE
UBEDA GOIKOETXEA



ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitara ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Bego Zuza. Zuzendaria: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Garbine Ubeda Goikoetxea. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza, Xabier Letona, Pello Zubiria. Euskara: Onintza Irureta. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaitz. www.argia.com: Gorka Bereziartua, Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Salmenta eta harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza teknikoak: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua, Berdaitz Goia, Olatz Korta, Bego Zuza. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Jone Arzallus.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxe: 943 361048. Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Bizkaia: Eleizalde 1, 2-D. 48600 Sopela. Tel: 94 6765580. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: iametza interaktiboa, S.L. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 145 euro. Ipar Euskal Herria: 176 euro. Espainia: 145 euro. Beste atzerriak: 182 euro. Airez: 285 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaita Taldeko partaidea da.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
diruz lagundua



Gipuzkoako Foru Aldundia



NON ZER

2014ko martxoaren 23a, 2.408. zenbakia

ASTEKO GAIA

35/2002 MAKROAUZIA Bakea eta justizia absolutzio eske.
XABIER LETONA / 4

PERTSONAIA

JEAN-MARIE HARRIBEY: «Sozialdemokrazia ez da gehiago existitzen». SUSTRAI COLINA / 10

GAIK

AUZOLAN ESPERIENTZIAK Euskalgintza sustatzeko saskiak
Erriberan. LIDE HERNANDO / 15

ZINTZILIK IRRATIA 30 urte Errenteriako uhinetan.
AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE / 16

HIDROGENOA Parke teknologiko jasangarriaren bila.
UNAI BREA / 18

IRITZIAREN LEIHOA

ESTATU KOLPEA UKRAINAN ASIER BLAS MENDOZA / 20

GUREAK... KARLOS GORRINDO ETXEANDIA / 22

GIZONIK EZ LILATOIAN MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 23

GORA PRO NOBIS ASISKO URMENETA / 21

TXANDAN Baimenik gabe. KATTALIN MINER / 22

BERTSO BERRIAK Kontraekonomia jardunaldiak.
IÑAKI AURREKOETXEA / 23

ZIRTAK Maitasunez. ANGEL ERRO / 24

ERDIKO KAIERA

IRUDIAK Emakumeak Euskal Herriko inauterietan.
OIER ARAOLAZA / 25

LITERATURA XABIER ETXANIZ ERLE, MIKEL GARCIA IDIAKEZ / 30

MUSIKA OLATZ KORTA / 31

DENBORA-PASAK ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 32

ALEA Erretzeak hiltzen du. MYRIAM GARZIA / 33

DENBORAREN MAKINA NAGORE IRAZUSTABARRENA / 34

LANDAREAK JAKOBA ERREKONDO / 35

TERMOMETROA

KOMANDO AUTONOMOAK Askatasun utopikorantz,
zurrumbiloan ito zen borroka. G. UBEDA GOIKOETXEA / 36

GASTEIZKO EKONOMIA Zerk *rulatzen* du Euskadiko
hiruburuan? MARTIN VICIOSO / 40

BLOGETAN! TOPAKETA Sarean tertulian jarduteko ohitura
errotu da. AMAIA UGALDE BEGOÑA / 42

ABORTU ESKUBIDEA Rajoy gorritu dutenak mintzo.
ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA / 44

EUSKARA ALBISTEAK ONINTZA IRURETA AZKUNE / 46

EKONOMIAREN TALAIA JUAN MARI ARREGI / 46

NET HURBIL Zigor ezazue pozoirik nahi ez duen ardogle
intsumitu hori. PELLO ZUBIRIA KAMINO / 48

MALTZAGATIK XABIER LETONA / 50

Bakea eta justizia absoluzio eske

Bultzada politikoa eta “dena da ETA” doktrina juridikoaren menpe egindako beste makroauzi bat da ezker abertzaleko 32 lagunek eta 110 elkartek jasan dutena. 12 urteren ondoren bukatu da epaiketa, eta orain epaimahaiaren txanda da. Justiziaren aurkakoa zen lehenago ere, baina ETAk jarduera armatua utzi ondorengo egoera berrian kafkiarra da. Espainiako Auzitegi Nazionalan bederen, beste behin ere argi geratu da honek ez duela ETArekin zerikusirik eta ezker abertzaleko hainbat kideren jarduera politikoa zigortu nahi dela.

| XABIER LETONA |

JOSE MARIA AZNAR 1998KO UDAN: “Ez gine-la ausartuko uste zuten?”. *Egin* eta *Egin Irra-tia* 1998ko udan itxi ondoren Espainiako Gobernuak lehendakariak eta PPko buruzagiak jaurtitako esaldia da, eta aski argi adierazten du Espainiako agintari nagusiek ezker abertzaleaz eta ETArekin aurkakako borrokaz zer pentsatzen zuten: Estatuak argi ikusi zuen beste era batera egin behar zuela ETA eta ezker abertzalearen aurka eta ekin egin zion. Egia esan, hasita zegoen, 1997an espetxeratu baitzuten HBko Mahai Nazionala, ETAk plazaratutako Alternatiba Demokratikoari buruzko bideo bat hauteskunde kanpainako propaganda espazio ofizialean erabiltzeagatik. Ondorengo urteetako atxiloteta, makroauzi eta espetxealdien mozkorraldiak Estatuaren ausardia hura noraino iritsiko zen erakutsi zuen.

18/98 auzia, Alderdien Legea, Herriko tabernen auzia, Jarrai-Haika-Segi, Egunkaria auzia, Amnistiaren Aldeko Batzordeak eta Askatasunarena, eta Udalbiltzarena izan dira makrosumario entzutetsuenak. “Dena da ETA” doktrina politiko-juridiko berriaren arabera, auzipetutako alderdi, erakunde eta enpresetako kideak ETako kideak ziren eta zigor gogorrek egotzi zitzaizkien dozenaka pertsonari. Egunkaria eta Udalbiltzakoeak erabat libre geratu ziren epaitu ondoren eta 2009ko hasieran, esaterako, Espainiako Auzitegi Gorenak *Egin*-en itxiera agindua bertan behera utzi zuen, itxieratik 11 urtera.

Gonzalez Mota fiskalaren txanda da. Bai, zigor eskaera berriak askoz txikiagoak dira: 12, 10 eta 8 urteko espetxe zigorretik 4 urte eta bi urte eta bi hilabeterako tartera jo du

Aurrekari horien lorratzean ekin zion ibil-bideari 35/2002 sumarioaren —*berriko tabernen* auzia moduan ere ezagutua— ahozko saioak 2013ko urriaren 17an eta martxoaren 12an amaitu berri da. Epaiaren zain da orain. Bost hilabeteen zehar 34 auzipetu eta 110 *berriko tabernen* 30etik gora abokatu atzera-aurrera ibili dira Euskal Herriatik Madrilgo San Fernando de Henaresen Espainiako Auzitegi Nazionalak duen egoitzara. Auzipetuek jadanik 30 urte egin dituzte behin-behineko espetxean, 1,75 milioi euroko fidantzak ordaindu dituzte eta bidaia eta auziaren kostuetan 700.000 milioi euro xahutu.

Auzipetu gehienak HB, Batasuna, Euskal Herriarrok eta Banaka SA, Eneko SA edo Erigane moduko enpresa txikietako kideak dira. Akusazioa? Auziak bi adar izan ditu, bata politikoa deitu dena eta auzipetuei ETako kide izatea edo berau laguntzea leporatu zaie. Bestetik, adar ekonomikoa, non 110 *berriko tabernei* beren jardueraren bidez ETA finantzatzea bizkarreratu zaien.

Epaimahaia Angel Hurtado, Julio de Diego eta Clara Bayarri magistratuek osatu dute. Fiskaltzaren aldetik Vicente Gonzalez Motak alor politikoa bideratu du eta Marcelo Azkarragak ekonomikoa. Horiez gain, AVT eta Dignidad y Justicia elkarteek ere herri akusazio gisa jardun dute. Jone Goirizelaia, Iñigo Iruin, Kepa Landa eta Adolfo Araizek bideratu dute auzipetuen defentsa lana eta beste 30etik gora abokatu aritu dira *berriko*



XABIER LETONA

tabernen defentsan. Fiskaltzaren 12, 10 eta 8 urteko espetxe zigorrekin (gehi kargugabetze eskaerak) hasi zen ahozko saioa. *Herriko tabernentzat* haien ondasunak konfiskatzea eskatu zen.

Goizaldeko 04:15, Etxarri-Aranatz

Martxoak 6. Goizaldeko 04:15 dira eta Etxarri-Aranatzetik atera da Juan Kruz Aldasoro. 04:45ean Txekun Lopez Aberasturi hartu du Iruñeko Txantrea auzoko Ezkaba Plazan. Huarten Santi Kiroga. Ordu erdi beranduago Floren Aoiz, Adolfo Araiz eta azken honen seme Urko Araiz, auzian abokatu-idazkari lanak egiten dituen jaso ditu furgonetak Tafallan. Ordu batzuk lehenago jakin da UPNren aurkako zentsura mozioa jartzeko PSOEek PSNri egindako debekuaz. Goizaldeko hotzari eta eguneko tentsioari aurre eginenez, PSNren jokaldiak utzitako arrastoak xehe jorratu dituzte auzipetuek hizketaldi beroan, loa eta isiltasuna berriz nagusitu arte.

Karmelo Landaren ahotik, martxoaren 6an auzipetuek gogor salatu zuten fiskaltzak HB kriminalizatzeko egindako saioa.

Gero hamaiketakoa, COPE apur bat, eta Madrilera iristear epaiketari buruzko *El Mundo*-ren lehen filtrazioak: fiskalak zigor eskaerak murriztuko ei ditu.

Konturatu orduko furgoneta Auzitegi Nazionaleko atarian da. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoatik datozen gainerako ibilgailuak ere iritsi dira. Hamaikagarrenez, denak barrura. Gonzalez Mota fiskalaren txanda da. Bai, zigor eskaera berriak askoz txikiagoak dira: 12, 10 eta 8 urteko espetxe zigorretik 4 urte eta 6 hilabete, eta 2 urte eta 2 hilabeterako tartera jo du (ikus zehatzago hurrengo orrialdeko infografian). Eta ezustekoa: Santi Hernando eta Isa Mandiolaren aurkako karguak erretiratu ditu eta herri akusazioak ere bai. “Libre zarete, akusatuen taldetik atera eta aretoaren atzealdean eseri zaitezketek”, esan die epaimahai-buruak. *Herriko taberna* eta elkarreentzat, dena den, ez da zigor arintzerik eta fiskaltzak haien ondasun guztien bahitzea berretsi du.



Onddoak

Bartolo
taberna - jatetxea

Euskal sukaldaritzan eta pintxotan
aukera zabala

Fermin Calbetón, 38
Donostia - San Sebastián

© 943 420 279
www.casabartoloetxea.com

35/2002 sumarioko auzipetuen zigor eskaerak

Auzipetuak	Fiskaltzaren hasierako eskaera	Fiskaltzaren behin betiko eskaera
Rufi Etxeberria	12 urte	4 urte eta erdi
Joseba Permach	12 urte	4 urte eta erdi
Juan Kruz Aldasoro	10 urte	4 urte eta erdi
Joseba Álvarez	10 urte	4 urte eta erdi
Karmelo Landa	10 urte	4 urte eta erdi
Txekun López de Aberasturi	10 urte	2 urte eta erdi
Jasone Manterola	10 urte	2 urte eta erdi
Floren Aoiz	10 urte	2 urte eta erdi
Juanpe Plaza	10 urte	2 urte eta erdi
Antton Morcillo	10 urte	2 urte eta erdi
Shanti Kiroga	10 urte	2 urte eta erdi
Jon Gorrotxategi	10 urte	2 urte eta erdi
José Luis Franco	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Maite Amezaga	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Jon Martinez	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Juani Lizaso	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Jaione Intxaurre	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Rubén Andrés	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Enrike Alaña	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Agustín Rodríguez	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Patxi Bengoa	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Idoia Arbelaiz	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Izaskun Barbarias	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Sabin del Bado	8 años	2 urte eta bi hilabete
Bixente Enekotegi	8 urte	2 urte eta 2 hilabete
Esther Agirre	10 urte	Libre (*)
Adolfo Araiz	10 urte	Libre
Mikel Arregi	10 años	Libre
Kepa Gordejuela	10 urte	Libre
Karlos Rodríguez	10 años	Libre
Andrés Larrea	8 urte	Libre
Pedro Félix Morales	8 urte	Libre
Santi Hernando	10 urte	Libre eta auzitik kanpo
Isa Mandiola	10 urte	Libre eta auzitik kanpo

(*) Zazpi hauentzat herri akusazioek hasierako zigor eskaera mantentzen dute.

Hamabi urte iragan dira auzipetuen amesgaiztoa hasi zenetik. 2002ko apirilean Baltasar Garzon epaileak Batasuna eta hainbat enpresetako kide ziren 12 kide atxilotzeko agindua eman zuen. Espainiako segurtasun indarrek hiru urte zeramatzaten ezker abertzaleko erakundeak eta enpresa ugari ikeretzen. 2000ko hasieran ETak su-eten hautsi ondoren, HB, Batasuna eta EHren legez kan-

Fiskalen ahotik akusazio ugari egin ziren, baina denak jarduera politikoagatik, areago, epaiketaren bukaeran saiatu ziren finkatzen kontua ez zela ETakide izatea, HB bera ere kriminala zela

poratzeak ere prestatzen ari zen Espainiako Kongresua eta 2002ko urriko ekainean onartu zen Alderdien Legea. Bi bidetik ari ziren ezker abertzalea jazaritzen: Garzon penaletik eta Alderdien Legea bide administratibotik. Garzon beldur zen bide administratiboa aurreratuko ote zitzaion eta 2002ko uztailan ehundik gora diru kontu eta 75 elkarte konfiskatu zituen. 2002ko abuztuan Batasunaren jarduera bide penaletik eten zuen hiru urtez –Alderdien Legeak bide administratiboa jarraitzen zuen–. Hala ere, jarduera hori bide penaletik eteteko pertsona fisikoak ere behar zituen Garzonek eta Espainiako poliziak prestatutako zerrendatik egin zuen 40 lagun inputazioa, nagusiki HB, Batasuna eta EHko kideak. Alderdien Legearen bidetik, ezker abertzaleko indar politikoen legez kanporatzea agindu zuen Espainiako Auzitegi Gorenak 2003ko martxoan.

Garbiketa etnikoa eta Hego Euskal Herriko BPG

Garzon epaileak, halaber, akusazio hauek guztiak frogatuko lituzkeen txostena egitea eskatu zion 2002an Espainiako Polizia Nazionalaren inteligentzia unitate zerbitzuari (UCI). Ezker abertzaleko erakunde politikoak ETaren barneko egiturak zirela frogatu behar zuen txostenak, baina horrez gain, beste hainbat akusazio erraldoi ere baziren epailearen helburu. Honakoak adibidez:

– ETak eta bere egitura zabalak egiazko garbiketa etnikoa bideratu zutela eta presioen bidez populazioaren zati handi batek Euskal Herria uztea lortu zutela.

– Ikerketa gaitza izango zela zioen epaileak, “argitu behar baita nola ‘garbitu’ duten ETA eta bere egitura terroristak, bereziki HB-EH eta Batasunak, Euskal Herriko hauteskunde errolda”.

– HB, EH eta Batasunak Espainiako jatorria zuen populazioaren aurkako era guztietako presioak egin zituztela hauek baztertzeko edo Euskal Herrikan kanporatzeko. Adibide gisa esaten zen 1990eko hamarkadan Barakaldoko ospitalean HBko militanteek hango ospitalean jaioetako haurren jaioetza agiriak faltsutu zituztela, Bilbon jaioetakoak zirela jarritz,



Ahozko auzia 20013ko urriaren 17an hasi zen eta 2014ko martxoaren 12an bukatu da; 34 pertsona eta 110 elkarte epaitu dira bertan. Eskuineko argazkian, makroauzien aurka Bilbon egindako manifestazioaren irudia.

horrela jaioberriak nahikoa euskaldun ez zen Barakaldoko jatorriarekin ager ez zitezen.

– Indarraren bidez, erabaki demokratikoak hartzeko instituzioek zituzten mekanismoak ordezkatu zituztela erakunde hauek eta horren adibide jartzen zituen Lemoizko zentral nuklearra eta Leizarango autobidea.

– Autoa borobiltzeko, Alemaniako Weimarraren errepublika garaian naziek erabilitako bitarteko berdintsuak erabilia lortzen zituztela erakunde hauek hauteskundeetako emaitzak.

Horiek guztiak frogatzeko Barne Ministerioari polizia txosten ahalik eta zabalena egiteko eskatu zion: ETAk bere sorreratik egindako atentatu guztien zerrenda, horietan izandako kalte pertsonal eta ekonomikoak, 1990etik aurrerako kale borroka gertaerak kontabilizatzea, bahituen zerrendak, ETARI harrapatutako armen zerrenda, kale borrokarako erabilitako materialen atzemateak, aipatu erakundeetako egoitza eta ondasunen zerrenda, erakunde hauetako kideek izandako parte-hartze publikoen zerrenda, Euskal Herritik atera behar izan zuten polizia, kazetari, enpresari, intelektual eta bestelako profesio-

sionalen zerrenda... Epailea, beste dozenaka konturen artean, zera eskatzera heldu zen: “Eremu terroristak eragindako biolentziaren ondorioz Euskal Herriko Barne Produktu Gordinak izandako jaitsieraren kalkulua, horretarako beharrezkoa izango den aholkularitza eskatuz”. Deskribatzen den guztia filmetakoa badirudi ere, Baltasar Garzonek 2002ko urriaren 16an idatzitako autoan agintzen da luze eta zehatz. Eta egoera borobiltzeko, fiskaltzak ikerketa hauek bideratu zituzten polizia eta guardia zibilak erabili izan ditut peritu gisa ahazko auzian.

Jadanik 18/98 sumarioko auzipetuak zigortzeko erabili zen ETARI 1992an atzemandako *Udaletxe proiektua* izeneko dokumentua, 35/02 auzi honen funtsa eraikitzeko ere erabili dute akusazioek. Honen arabera, HB ETAREN fronte instituzionala eta masa frontea litzateke eta KASEK koordinatuko lituzke ezker abertzaleko egitura guztiak. Finantzaziorako, aldiz, ETAk enpresa eta elkarte sare zabala izango luke. Bitxia zen, esate baterako, martxoaren 6an eta 7an fiskalak nola aritzen ziren behin eta berriz AEK proiektu honen



Liburu azoka

Amurrión, martxoaren 26tik 30era Guk etorbidean.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!



Auzipetuetako batzuk martxoaren 7an Espainiako Auzitegi Nazionalera sartzekotan zirela.

parte zela errepikatuz, nahiz eta Auzitegi Nazionalak bere garaian erakunde hau guztiz errugabetu zuen kargu horietatik.

Instrukzio luzeegia

Ikasketa baimen batez baliatuta, 2005 eta 2006an Baltasar Garzonek hitzaldi batzuk antolatu zituen New Yorken eta tarte horretan Fernando Grande-Marlaska epaileak hartu zuen kasua behin-behineko. Honek 2006ko urtarilean beste bi urtez luzatu zuen Batasunaren jardura etena. 2006ko ekainean hartu zuen berriz auzia Garzonek eta 2008ko urtarilean azken autoa idatzi zuen 41 lagun eta 110 *herriko taberna* auziperatuz. 41 lagun horietatik azkenean 32 dira epaiaren zain orain. Ezker abertzaleari egotzitako kale istiluek, halaber, 24 milioi euroko kalteak eragin zituztela ondorioztatu zuen Garzonek. Horri gehitu behar zitzaion ETAk egindako kalte guztiak HB, Batasuna eta EHri bizkarre-ratzen zizkiola, eta horretarako *herriko taberna* guztien konfiskatzea aurreikusi zuen.

Baina egoera korapilatu egingo zitzaion eta Garzonen bidea eta Alderdien Legearen bidea nahastu egin ziren berriz. HB, Batasuna eta EHren ilegalizazioaren ondorioz, Auzitegi Gorenak haien ondasunen likidazioa agindu zuen 2003an. 2007an, ordea, Auzitegi Goreneko sala berak aho batez ebatsi zuen ezin zirela *herriko tabernak* bahitu, hauek lege ez zirelako Batasunarenak eta beren jabeak pertsona fisiko zehatzak zirelako. Horrek eragina izan zuen baita ere 35/2002 auzian, hasiera batean *herriko taberna* guztiak blokean epaitu nahi izan zituztelako, baina epai honen ondorioz azke-

nean banaka epaitu dituztelako. Juridikoki ala izan da, baina ikusi behar orain epaimahaiak nola jokutzen duen, haiei buruzko aipamene-tan fiskaltza etengabe modu orokorrean aritu izan delako ahozko auzian, *herriko taberna* guz-tiak HBren eta Batasunaren agindura zeuden elkarte bloketzat hartuz.

Hamabi urte joan dira auzia hasi eta ahozko auzira arte eta, besteak beste, fiskaltzak horre-gatik txikitu ditu zigor eskaerak, “luzamendu bidegabea” aringarria aintzat hartuz. Horrez gain, azken urteetako hainbat auzitan ere “dena da ETA” dok-trinapean epaitutakoen zigorrak arintzera jo da Auzitegi Gorenaren aginduz, eta horrek ere eragi-na izan du kartzela zigorren txiki-tzean. Azken autoan, halaber, garbiketa etnikoa eta berau sos-tengatzeko egindako akusazio guztiak erretiratu zituen Baltasar Garzonek.

Loiolako bake saioaren prestakuntza lanetan ari zirela, Baltasar Garzonek berak Batasunako kide gisa ezetz, baina ezker abertzaleko kide gisa jardun zezaketela jakinarazi zien auzipetuetako askori

Absoluzioa

Defentsako abokatuek, aldiz, absoluzioa eskatu dute auzipetu guztientzat, haien ustez 35/2002 auzian tesi bat egin delako eta gero tesi hori frogatzeko istorio juridiko erraldoi bat eraiki delako, horretara bideratutako poli-zia txostenak froga gisa erabiliz. Egunkaria eta Udalbitza auzietan hori leporatu zien Auzitegi Nazionalak bi auzi hauen instruk-zioa bideratu zuten epaileei, lehenengo tesia egitea eta gero berau sostengatzeko auzia prestatzea, baina ez zutela frogarik aurkeztu beren tesia egiazkoa zela berresteko, eta horregatik absoluzioa agindu zen.

Fiskalen ahotik akusazio ugari egin ziren, baina denak jardura politikoagatik; areago,

epaiketaren bukaeran saiatu ziren finkatzen kontua ez zela ETakide izatea, HB bera ere kriminala zela eta, beraz, nahikoa zela HBkoa izatea erakunde terroristako kide izateko. Baina ez, inork ez du izendatu HB edo Batasuna erakunde terroristak. HB legezkota zen 2003 aurretik, eta ondoren izandako jardura politikoa ere pertsonen berau egiteko eskubidean oinarritu da.

Ez dira defentsa abokatuak bakarrik, Iñaki Lasagabaster, Nazario Oleaga, Txema Montero, Maria Jose Virto eta beste abokatu eta jurista ugari ere antzerako iritzia dute. Eta funtsean, horixe bera salatu zuen EAJk joan den astean, auziari buruzko iritzia ematerakoan: makroauzi hauek juridikoki bidegabeak direla eta badela ordua hauekin amaitzeko. Eta 2009an, Karmelo Landa auzipetuaren babes eskariz, Nazio Batuen Erakundeko Atxiloketa Bidegabeen Lan Taldeak Landaren atxiloketa eta espetxeratzea bidegabea zela ondorioztatu zuen. Baina gehiago ere esaten zuen: Batasuna legez kanpokoak izan arren, pertsonen politikan jarduteko eskubidea bazutela. Areago, ezker abertzalea 2006ko Loiolako bake saioaren prestakuntza lanetan ari zela, Baltasar Garzonek berak Batasunako kide gisa ezetz, baina ezker abertzaleko kide gisa jardun zezaketela jakinarazi zien auzipetuetako askori. Eta hala jardun zuten luzez ezker abertzaleko politikari ugari.

Logikak eta justiziak absolutuzioa eskatzen dute, baina behin eta berriz esan dena, hau Espainiako Auzitegi Nazionalean epaitu da eta horrek guztiz airean uzten du epaia. Bakearen unean espetxe gehiago eta elkarte ondasunen fiskaltzearen mehatxua surrealista da, baina hor dago. ■



**LET'S
GO %**

2016rako Donostian
%60 birziklatuko dugu.



Zakarrontzira botatzen ditugun hondakinen %40 materia organikoak dira. Horrekin konposta egin daiteke, nekazaritzan, lorategietan eta obra zibilean erabiltzeko.

Hemen da konposta!

Eskatu edukiontzi marroia erabiltzeko txartela.

Eman ongietorria konpostari.



Webgunearen bidez

**jokogarbia.
donostia.
org**

Telefonoz

010
udalinfo

Udalinfo
bulegoetan

UDALINFO
HERRIARRAREN ARRETARAKO ZERBITZUA
SERVICIO DE ATENCIÓN CIUDADANA

JEAN-MARIE HARRIBEY

«Sozialdemokrazia ez da gehiago existitzen»

“Maitiak galdegin zautan, moltxa banuenez...”.

| SUSTRAI COLINA |

Argazkiak: David Helman

Mintza gaitzen krisiaz...

Bere dimentsio aniztasuna ikusita krisi sistemikoa da, azken hamarkadetako kapitalismoaren eraldaketaren erro sakonei oihartzun egiten diena. Balore ekoizpenaren krisi baten aitzinean gaude. Batetik, Marxek XIX. mendean azpimarratu legez, kapitalismoak ezin du lan-indarraren ustiapenez abusatu bere hedapen gaitasuna zapuztu gabe. Horregatik errepikatzen dute periodikoki inbertitzaile kapitalistek kapitalaren errentagarritasuna ez dela nahikoa. Are gehiago, azken urteetan munduko sektore industrial gehienak euren ekoizpen gaitasunetik gora dabilta, gainproduktzio kronikoan. Lansariak eta lan baldintzak zapaltzeko grinaren poderioz, beraien bilakaera, sortzen duten operatasuna baino anitzez ttipiagoa da, eta kapitalismoak ezin du bere almazenik hustu. Bestela esanda, kapitalismoak ez du oraindik eguneko 25. ordua asmatu. Bestetik, kapitalismoaren ohiko krisiari krisi ekologikoa lotzen zaio. Sistemak ezin du langileei aberastasuna ekoitzarazi behar diela pentsatzen segi, xehetzen, xehatzen eta xahutzen duen horretan oinarriturik. Horregatik diot balioaren ekoizpenaren krisia ez ezik balioaren ekoizpena gauzatzeko krisia ere badela. Lehengai eta baliabide naturalen urritzea agerikoa izateaz gain, merkatuak ez du jada ekoitzitakoa xurgatzen.

Ez al zaio horri azken 40 urteotako munduko ekonomiaren finantzazioa gehitu behar?

Ekoitzitako aberastasunaren arabera lan-sarien uzkuak klase zenbaiten aberaste gupidagabea ekarri du, eta behin aberasturik, kapitalismoaren finantzazioan birziklatu dituzte etekinak, ohiko inbertsioetara mugatu beharrean. Hala lehertu dira bat bestearen gibeletik burbuila finantzario guztiak 2007-

2008ko kolapsora heldu arte. Orduan, munduko banku eta finantza sistema goitik behera eroriko zatekeen estatuek ez balute zor pribatuaren zati handi bat heien gain hartu. Horrek defizit publikoaren eta zor pribatuaren emendatze izugarria eragin zuen herrialde gehienetan. Zer esanik ez, euroguneko estatueta. Baina ez gaitzen tronpatu, medioek eta diskurtso ekonomiko nagusiak zorpetze publikoaren krisia krisi orokorraren kausa bat dela badiote ere, ondorio bat baizik ez da. Horregatik ez dute zentzurik zulotik jalgitzeko predikatzen dizkiguten austeritate politikek. Ahantzi ote dute atzeraldian gastu eta inbertsio publikoen murrizteak zauria handitu baino ez duela egiten? 30eko hamarkadan frogatu zuen hori Keynes-ek. Inbertsio pribatua mehatxupean denean inbertsio publikoa bakantzen bada, atzeraldiari atzeraldia eransten zaio. Austeritate politiken absurdua eta zinismoa ikusi nahi duenak begiratu dezala Greziara. Troiak Grezia erreskatatu duela diote, baina Troiak ez du Grezia lagundu, ustez negozio borobila zenean Greziako estatu bonoak erosi zituzten banku europarrak salbatu ditu.

NORTASUN AGIRIA

Jean-Marie Harribey. 1948an Talence-n (Frantzia) sortutako ekonomialari hau Attac (bertako lehendakari izan zen 2009ra arte) eta Copernic fundazioetako kide eta Les Economistes Attérés elkartearen lehendakaria da. Urtetan Bordeleko unibertsitateko irakasle izana, pentsamendu anti-neoliberalaren aurpegi ezagunenetakoa eta liburu anitzen idazlea da. *La richesse, la valeur, et l'inestimable* (2013) eta *Les feuilles mortes du capitalisme* (2014) dira argitaratu dituen azkenak.





Krisiaren aitzakian ez ote dira hamarkadetako lorpen sozialak komunetik behera botatzen ari?

Europar Batasuneko herrialdeak, batez ere sortzaileak, II. Mundu Gerratik landa finkatu zen eredu sozialak ezaugarritzen zituen. Azken 40 urteotan, kapitalismo neolibelararak etengabe egin dio kosk modelo horri: erretretarako baldintzak zailduz, lan-ordu kopurua emendatuz, soldatak jaitsiz, oporrak murriztuz... Azken 20-30 urteetako erreforma gehien-gehienak nora-bide bakarrekoak izan dira, eta jakina, krisi karratu hau aitzakia borobila da babes sozialaren sistema pitzatua txikitu eta zerbitzu publikoen pribatizazioa bultzatzeko. Austeritate politikak ez datoz ez-dakit-zein egitasmo publiko murriztera soilik, lorpen sozialak dantzan jartzera baizik. Ez dagoela beste modurik, beste biderik, sinetsarazten digute, “erreforma estrukturalak” josten gaituzten bitartean. Lan merkatuaren erreforma estrukturala, babes sozialaren erreforma estrukturala, erretreten erreforma estrukturala... Horiek oro estrategia orokor eta koherentearen parte dira. Ñabardurak ñabardura, eskuineko zein ezkerreko etiketa duten gobernu guztiek jotzen dituzte ontzat. Hortxe dago koska: sozialdemokrazia ez da gehiago existitzen. Orain, gurean, gobernu liberal, ultra-liberal eta eskuin muturrekoak baizik ez daude.

Zein dira, zure ustez, krisitik ateratzeko bideak? Sistema honi oinarri sanoagoa jarri ote dakioke?

Krisi hau kontraesan sozial eta ekologikoen leherketa sinergikoa bada, orain plantan ezarzen ari diren politika anti-sozialak eten eta orain artekoarekin alderatuta oso ezberdina den garapen eredua hausnartu behar genuke.

Dagoeneko, ezin gara hazkunde ekonomikoa enegarrenez sustatzearekin konformatu. Ekoizpenaren mamia, garapen moduari eta kontsumo jendarteari heldu behar diegu. Ezin gara teoria hutsean gelditu. Krisiak azaleratu dituen premia sozialek berehalako erantzunak exijitzen dituzte, ezberdintasun sozialak lehenbailehen ttipitzen hasi behar dugu, fiskalitateak errotikako erreformak zor ditu, sistema bankarioa birpentsatu behar da... Eta batez ere, dinamika zoro honen abiapuntuari egin behar zaio aurre: kapitalen zirkulazio libre eta frenetikoari. Arlo guztietan batera aitzinatzeko marko politikoa balego itxaropentsu egon gintezkeen, baina garapen ekonomikoaren eredua eta joera anti-soziala zalantzan jartzen ez dituguno, nekez aterako gara zulotik. Are okerrago, ez harritu eredu anti-sozialetan eta itsumen produktibistetan tematzen bagara.

Ekonomia merkantilak soilik sortzen du aberastasuna, ala?

Kapitalismoak ezagutzen eta sustatzen duen aberastasun bakarra forma merkantila duena da, etekina sortzeko zoria duena, mozkin hori kapitala bihurtuko delarik. Aberastasun merkantil horren ondoan, alta, marko kolektiboan ekoiztutako zati arras garrantzitsu bat dago. Liberalen kapitalismoak dio marko ez merkantil baten baitako langileen lana (hez-kuntza edo osasun publikoan, esaterako) aktibitate parasitarioa dela. Heientzat, aberastasun bakarra merkatuak merkaturako egiten duena da. Enetzat, aldiz, ideia faltsua ez ezik, kapitalaren metatze zentzugabea justifikatzeko baizik balio ez duen arrazonamendua da.

Ekonomia politikoaren arabera, aberastasuna eta balore ekonomikoaren arteko bereizketa egin behar da. Aristotelesek berak aipatzen zuen erabilpen eta truke baloreen arteko diferentzia bere oinetakoen adibidea jarritz. Ibilteko balio ziotela zioen, hori zen erabilpen balioa, baina aldi berean, beste zerbait lortzeko truke-balore bat ere izan zitezkeen. Hori hala, eskola publikoak erabilpen balore izugarria ekoizten du haurrak heziz, baina horrek ez dauka balore merkantilik, ebaluazio monetarioa duen arren. Horregatik diot liberalen diskurtsoa interesatua dela, eta uste faltsu horrekin egungo kolektibitatearen baitako jarduera ez merkantiletako giza baliabideak zein bitarteko materialak kapitala metatzera bideratu nahi dituztela.

Garapen iraunkorra jasangarritasunera bideratuta al dago?

Garapena iraunkorra edo jasangarria izan, iraunkortasunaren ikusmolde ahul eta benetakoaren arteko talka dago. Iraunkortasun ahularen arabera, baliabide naturalak ahitzen ari gara, baina ez dugu zertan kezkatu, aurrerapen zientifiko eta teknologikoekin ordezkaturiko baitutugu. Ikuskera faltsua bezain hipokrita da, baina tamalez multinazionalak eta NBE bezalako erakundeek aintzat hartzen dutena. Iraun-

kortasunaren zinezko kontzeptua dago parez pare, baliabide naturalak aurrerapen zientifikoekin ezin direla ordezkatu aldarrikatu, baina bien arteko osagarritasuna onartzen duena. Talka horretatik abiatuta gerra semantiko eta ideologikoak lehertu dira dena suntsitzen duen garapen ekonomikoari *lifting* bat egin nahi eta zinezko arazoari adarretatik heldu nahi dioten artean. Berriz diot, ekoizpenaren mamiaz hausnartzen ez duguno, garapen iraunkorren kontzeptua zentzu-husten ari gara. Ekoizpen egiturei, prozesuei eta kalitateari buruz hausnartzeak soilik itzul diezaioke hitzari bere benetako esanahia. Izan ere, ekoizpenaren kalitatea ezinezkoa da lanaren kaliterik, lanpostuen kaliterik eta kalitatezko babes sozialik gabe. Dena da bat. Zuzenbide laborala zein sistema soziala hankaz gora jartzea, kalitatea bost axola zaion produktibismo suntsitzailearen eskutik doa.

Desazkundera zinezko alternatiba ote da?

Produktibismoaren eta gaudenera ekarri gaituen ideologiaren kritikan desazkunderaren teorizatzaileekin bat egin arren, ez zait irtenbidea iruditzen. Ene ustez, trantsizio estrategia bat ezarri behar da plantan, sistema energetiko guztiak birmoldatu, garraio sistemak birdiseinatu, gure hirigintza birpentsatu... Horrek

AUZO ETA HERRIAK DONOSTIA INDARTZEN Aurrekontu parte-hartzaileak

Bilera irekiak Alkate eta
Gobernu Taldeko kideekin
herri proposamenei buruz
kontu emateko

Bilerak non?

- **Martxoak 24, Gros - Ulia.** Okendo K.E.
- **Martxoak 25, Intxaurren.** Intxaurren K.E.
- **Martxoak 26, Amara - Morlans.** Amara Berri Eskola Publikoa (Urbieta)

Aurkezpen guztiak 19:00etan izango dira.



www.auzoetaherriak.donostia.org

[@DSS_Partaidetza](https://twitter.com/DSS_Partaidetza)



Ur-tanta

Bada oihuka mintzo den jendea, konbentzimendua eta bolumena nahasten dituen, hitzak momentuko su artifizialtzat dauzkana. Antipodetan dago Jean-Marie Harribey. Galdera bakoitzaren ondoren isilik egoten da minutu erdiz eta apal-apal jaurtitzen du bere egiarik handiena, harria zulatzen duen ur-tantak nola.



inbertsio izugarriak egin beharko diren denbora tarteak eskatzen du, eta nola uztartzen da trantsizio aro hori ekoizpenaren ttipitzearekin? Trantsizio fase horretan jasagarritasuna ekoizpenaren kalitatearen arabera neurtu beharko da, ez ekoizpenaren kantitatearen arabera. Hala, trantsizio hori atzerabiderik gabe abiatzen delarik, ez dut gure ongizatea hazkunderaren emendatzearekin lotzerik nahi. Ongizatea aurrerapen teknologikoarekin eta progresoarekin lotzen duen ustea hautsi behar dugu. Baina berriz diot, horiek balizko trantsizio baten ondoko aferak dira. Bitartean, asetzen ez diren behar sozial gorriak daude. Enpleguak diren langileen %20a sos faltan ez dela gehiago okulistarengana edo dentistarengana joaten irakurtzen dudanean sutan jartzen naiz. Premia sozial horiei gaur erantzun behar zaie, ez bihar. Bestalde, desazkundearen estalpean ilusio falsuak saltzen ari direnei garbi esan behar zaie, ez dagoela zerutik datorren diru-sarrerarik, eta etekinak ere lanetik datozena. Ke gortina hori oso ongi baliatu dute liberalek hatza zaurian sartu eta urteetan langile mugimenduaren ardatza izan den “lanak soilik dakar mozkinak” goitik behera arrakalatzeko.

Asko hitz egiten da krisi ekonomikoaz, gutxi krisi sozialaz. Karrikak sumenez gainezka ez daudelako agian?

Krisi ekonomikoaren ondorioa da krisi soziala, baina aldi berean, krisi sozial hori da krisi ekonomikoaren kausetako bat. Lorpen sozialak kolokan jartzea, soldaten bilakaera produktibitatearen bilakaerarengandik deskonektatzea... Horiek oro krisiaren sustraiak dira, ez soilik adarrak. Jakina krisi ekonomikoak krisi soziala larritzen duela, baina degradazio sozialak ekarri du krisi ekonomiko. Hori hala, arazoa da kaleak sumenez sutan ez egotea. Kapitalismo neoliberalak langile mugimendu eta mugimendu sozialei baitaila irabazi die azken hiru hamarkadetan. Behin betiko garaipena ez izatea espero dut. Bitartean, langabezia tasa zeruetan dabil, ezberdintasunak areagotu dira, prekarietatea errutinaren parte bihurtu da,

elkartasun sistemak zulatuta daude, sindikatuek euren ekintza gaitasuna galdu dute, tradizionalki langile mugimenduaren ordezkariak izandako erakundeek ez dute eragin-indarrik... Nola nahi duzu baldintza horietan mobilizazio jarraitu eta eraginkorrak antolatzea?

Horretaz gain, sistema neoliberalak behialako klase kontzientzia eta elkartasun kolektiboaren sentimendua indibidualismo zikoitzez ordezkatzeko asmatu du. Baina tira, hemen deus ez da behin betikoa.

Herritar gisa, izango dugu noizbait sistema ekonomikoa eta eredu soziala hautatzeko modua ala botere ekonomikoak botere politikoa hankapean dauka?

Menpekotasuna botere ekonomikoak jendarte osoari inposatzen dio, ez politikariei. Nik botere politiko eta ekonomikoaren arteko sinbiosia ikusten dut, bai jokamoldeetan bai aspirazioetan. Klase burgesaren koherentzia ariketa baten aitzinean gaude, ez menpeko-nagusi harreman batean. Hori hala, sistema ekonomikoa eta eredu soziala hautatzeko moduan izango garen ez dakit. Dakidana da ez dagoela betiko den sistema ekonomikorik. Betitik eta betiko dela uste dugun kapitalismoak bi edo hiru mende baizik ez ditu. Zer da hori historian? Alabaina, ez nuke esango kapitalismoa azkenetan dagoenik, bere baitako ziklo baten bukaeran baizik. Finantzarizazioaren zikloaren amaieran gaude, gizateriaren ongizatea merkatuaren pribatizazio libretik zetorrela zioen ideologiaren amaieran. Krisiari esker argi geratu da merkatu finantzarioek ez dutela berdintasuna eta heziketa bermatzen, eta nekez oinarritu daitekeela gizateriaren zoria horretan. Alta, horrek ez du esan nahi kapitalismoak ezin duela irtenbide berririk kausitu. Egutero asmatzen ditu. ■



AUZOLAN ESPERIENTZIAK

Euskalgintza sustatzeko saskiak Erriberan

Errigora ekimenak, aurreko udazkeneko kanpainan, Nafarroa hegoaldeko produktuz betetako 8.000 saski baino gehiago banatu zituen Euskal Herri osoan. 112.000 euro bildu zituzten, Foru Legeak eremu ez euskalduntzat dituen lurrotako euskalgintzan inbertitzeko. Espero gabeko arrakasta lortu ostean, hurrengo kanpaina prestatzen ari dira orain.

| LIDE HERNANDO |

EUSKALGINTZARI eta bertako produktuen salerosketari bultzada ematea helburu duen ekimena Euskal Herriko bazter askotara iritsi zen joan den udazkenean. Xabier Gojenola eta Peru Aranburu Errigorako partaideen hitzetan, “jendeak ilusioz hartu duen ekimena izan da, eta alde horretatik oso jarrera aktiboa aurkitu dugu leku ezberdinetan: ikastoletan, euskaltegietan, enpresetan...”.

Nafarroa hegoaldeko egoera kaxkarrari buelta emateko sortu zen Errigora. Batetik, legeak eremu ez euskaldun izendatua duen gune honetan euskara ez da hizkuntza ofiziala, eta beraz, oso gutxi dira euskara sustatzeko dauden azpiegiturak. Bestetik, Erriberako nekazaritza globalizazioarekin asko ahuldu da azken urteotan. Egoerari erantzuteko, Zazpiak Bat eta Ikastolen elkarteak ekimena antolatu zuten 2012an: Erriberako produktuz betetako saskiak saldu zituzten Euskal Herrian, eta irabazi ekonomikoak Tuterako Argia ikastolara bideratu zituzten. “Ekimenak lortutako arrakasta izan zen Errigoraren sorburua: denboran luzatuko zen proiektua behar zela ikusi genuen, lantalde finko baten laguntzaz puntualki horrelako kanpainak antolatuko zituena”, dio Gojenolak. Horretarako, harremanetan jarri ziren euskalgintzan diharduten elkarteekin, AEK eta Sortzen Ikasbatuaz-ekin.

Kanpaina izan da gakoa

“Ekimenak jarraipena izan zezan, urtean bi kanpaina antolatzea komeni zela pentsatu genuen, udazkenean eta udaberrian”, azaldu du Aranburuk. Erriberako nekazariekin hartu-emanen jarri eta aurretiko komunikazio lanen ostean (dena auzolanean), joan den udazkenean hiru asteko epea zabaldu zuten saskien eskaerak egiteko. Azken kanpainan,



Haur, gazte, heldu eta zaharrak aritu ziren saskien prestaketan laguntzen. Udazkeneko kanpainan, Lodosako ikastola, Tuterako euskaltegia eta Euskaraz Bizi eta Ikasi herri ekimenak izan ziren onuradunak.

Lodosako ikastola, Tuterako euskaltegia eta Euskaraz Bizi eta Ikasi herri ekimenak izan ziren onuradunak.

“Banaketa orokorra egin aurretik, 450 saskiko erakusgaia atera genuen. Kasu horretan eta hurrengo 8.000 saskiak prestatu eta banatzerakoan ere, jendearen inplikazioa eta laguntzeko gogoia handia izan zen: ez dugu inongo enpresarik kontratatatu, dena auzolanean egin da” gogoratu du Gojenolak.

Eskaintza berriak udaberriarako

Udaberriko kanpainarekin jo eta ke ari dira orain. Aurreko kanpainaren arrakastaren ostean, xede berria dute Errigorakoek: Nafarroa hegoaldeko produktuak modu iraunkorago eta egunerokoagoan kontsumitu ahal izateko bideak zabaltzea. Horretarako, martxo bukaera eta apirila hasiera artean Nafarroako olioia eskuratzeko aukera antolatuko dute zenbait herritan, eta ekainean, kontserbak kutxatzen eskatzeko aukera. Epe luzerako beharrak asetzea (olioa 5 litroko bidoietan eta kontserbak latetan joango dira) eta salneurria arrazoizkoa izatea dute helburu. ■



30 urte Errenteriako uhinetan

1984, Errenteria (Gipuzkoa). 30 urte pasa dira San Joan Suaren gau magiko hartan Zintzilik Irrati Libreak (zintzilik.net) bere burua aurkeztu zuenetik. Mugimendu baztertuei ahotsa eta indarra ematea zuten hasieratiko helburua. Tarte honetan irratian zein herrian gertatutakoak dokumental batean bildu dituzte orain, ahotsa gehiago zabaltzeko.

| AINHOA MARIEZKURRENA ETXABE |



EZ DIRA BERDINAK duela 30 urteko eta gaurko garaiak. Hamaika gertakari jazo dira ordu-tik: PPren gehiengo absolutua, krisi ekonomikoa eta baloreen krisia, ETArekin borroka armatuaren amaiera, Bilduren legalizazioa edota ia 30 urteren ostean PSOE Errenteriako alkatetzatik at geratzea aipatu dituzte irrati-kideek, inflexio puntuan aurkitzen direla adierazteko. “Gure ikuspuntutik, garai baten amaieran eta beste baten hasieran gaude. Borrokatzeko moduak eta antolakuntza aldatzen ari dira eta baliteke orain sare sozialak izatea herri mugimenduen isla”.



Irudietan, Zintzilik irratiaren estudioa eta lantaldea. Xabi Garate, Gema Mariezkurrena eta Ima Morillas Zintziliketako kideek azaldu digutenez, feminismoak, okupazioak, sexu askapenak, komite antinuklearrak, gazte asanbladak, intsumisioak... tokia dute irrati honetan.

Zintzilik ere aldaketa horietara ohitu eta moldatu behar izan da. Jendarte indibidualistagoa dela iritzita, kolektibo gisa lanean jarraitu nahi dutela adierazi dute Xabi Garate, Gema Mariezkurrena eta Ima Morillasek. Belaunaldi berriok ere, irratiaren komunikatzeko, elkartzeko eta harremanetarako gunea izatea nahi dute, euren tresna izatea, herri-botererako tresna. Hala, herritar oro animatu nahi dute hurbiltzera. Hain juxtu, autogestioan eta asanbladetan oinarritu da beti Zintzilik funtzionamendua, diru-laguntza eta propagandarik gabe, soldatarik gabe, modu herrikoian eta denon artean sortua, militantea. Finean, hasieratik “ahotsik gabekoei ahotsa ematea” izan dutelako eginkizun, mugimendu sozialen kontrainformazioa plazaratzea, alegia. Feminismoak, okupazio-

27 urte ez dira ezer

27 URTE EZ DIRA EZER izenburua jarri diote atera berri duten dokumental autogestionatuari. Bizipenak, pasadizoak, iraultzak, borroka, ideologiak, atxilotetak, mugimenduak, elkarbizitza, herri baten historia... kontatzen dituzte bideoan. Irratia bizirik dagoela eta bizirik jarraituko duela transmititu nahi dutelako aukeratu dute izen hori: “Jendeak gure historia ezagutzeari nahi dugu, baita bertatik pasa direnei omenalditxoak egitea ere”. Asmoa 25. urteurrenean ateratzea zen eta 27.era atzeratu zuten. Hala ere, 30 urteotan gertatu diren gauzekin borobildu dute azkenean. Hortik izenburuaren zergatia.

Norbanako zein kolektibo ugari lagundu dute dokumentala aurrera ateratzen, edizio lanetan, materiala gehitzen... Artxiboko argazkiak, audioak eta egindako hogeitaz elkarbizitza zituzten esku artean, eta zailena bideoak lortzea izan da, baita sailkapena egitea ere. Hainbeste oroitzapenen artean zein kontatu aukeratzea ez da erraza: “Kideak atxilotu zituzten uneak,

gurekin ez dauden oroitzapenak, Ertzaintza agindu judizialik gabe egoitzara sartu eta dena miatu zutenean... Baina batez ere pasa ditugun une on guztiak ditugu gogoan, saioak egiten, txosnetan, herriko jaietan, solasean...”.

Irratiko pasadizoez gain, 30 urteotan herriak bizi izan duen bilakabidea kontatzen du dokumentalak, “Zintzilik ez baita irratia bat soilik, hainbat mugimenduren isla eta borroka ere bada. Herri baten historia kontatu nahi izan dugu, irratia berak hori egin duelako beti”.

Iazko abendutik, herriz herriko aurkezpenak egiten ari dira, gonbidatzen dituzten herrietan aritzeko prest. Hilaren 26an, esaterako, Groseko Kortxoenea gaztetxean

ikusi ahal izango da eta 30ean berriz, Errenteriako gaztetxean. DVD formatuko 1.000 kopia argitaratzeko asmoa daukate, gehigarri osatuak, hala nola Ynestrillasek 1998an herrira egin zuen bisita edo *Ciudad sin ley* dokumentala.



ak, sexu askapenak, komite antinuklearrak, gazte asanbladak, intsumisioak... tokia dute irratia honetan. “Kolektiboek libreki hitz egin dezakete Zintziliken bitartez, zentsurarik gabe, askatasunez”, diote kideek. Urteek aurrera egin ahala, desberdintasun bat antzean dute: lehen kolektiboak joaten ziren Zintzilik irratiara eta orain Zintzilik da kolektiboengana joaten dena.

Interes politiko eta ekonomikoak hedabide “neutralekin” janzten direla aipatu dute Garatek, Mariezkurrenak eta Morillasek. Horregatik beharrezkotzat dute hedabide propioak sortu eta bestelako mezuak eman ahal izatea: “Komunikazioa ezinbestekoa da, informazioa duenak boterea dauka”. ■



Datu Pertsonalen Babesa - LOPD

Legedira egokitzeko prozesua
(euskaraz, pertsonalizatua)



943 453 588 · www.sigacus.com



HIDROGENOA

Parke teknologiko jasangarriaren bila

Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea Europar Batasunaren Zero Hytechpark proiektuan parte hartzen ari da. Bera bezalako guneak jasangarriak izatea da helburua. Horretarako bideetako bat izan daiteke iturri berriztagarrietatik lortutako energia soberakinak hidrogenoaren bitartez metatzea, ekoizpen txikiko uneetan baliatu ahal izateko. Zamudioko BTEK zentroan LH eta Batxilergoko ikasleei azaltzen dizkiete hidrogenoaren aukerak.

| UNAI BREA |

Argazkiak: BTEK / Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkea

KANPOTIK BEZAINBAT BARRUTIK, itxura futurista dauka Zamudioko Zientzia eta Teknologia Parkeko BTEK eraikinak. DBHko 3. eta 4. mailako eta Batxilergoko ikasleek bisitatu dezaten pentsatuta dago batez ere, eta haienztzat erakargarri izan nahi du diseinuak, baina ez haienztzat bakarrik. “Teknologia gizarteratu nahi dugu, gizarteak sentitu dezala teknologia bere parte dela; adituak izan gabe ere, ona da gauzek zelan funtzionatzen duten jakitea, horrela hobeto jabetuko gara-eta teknologiaz egiten dugun erabileraren ondorioez”, diosku Xabier Díaz Silvestre zentroko zuzendariak. Berak hartu gaitu, gaurkoan ARGIA beste bisitaririk edukiko ez duen piramide bikoitzean.

BTEK eraikinaren kanpoko aldea.



Zientzia eta teknologiaren kultura jendartean zabaltzeko eta, bide batez, ikasleengan bokatzea suspertzeko nahia aldarrikatzen du BTEK-ken webguneak. Bizkaiko Zientzia eta Teknologia Parkeak 2005ean egin zituen BTEK –Bizi Teknologia esan nahi du– sortzeko lehen urratsak; ondoren, 2009an, BTEK Fundazioa sortu zuten parkeak berak, Ikastolen Konfederazioak, Elhuyarrek, Tecnaliak eta SPRIk. 2010ean zabaltu zuten eraikina.

Bisita gidatuetan, teknologiaren alderdi hurbilenaz hitz egiten diete ikasle nerabeei. Egunero ukitzen dituzten gauzez, edo behintzat zeharo arrotz suertatuko ez zaizkienez. Ezin dena hemen laburtu ordea; izan ere, bisitaren amaierako lantegiari eskaini nahi diogu arreta batik bat. Hidrogeno eta Energia Berriztagarrien Tailerrari, hain zuzen.

Zero Hytechparken ardatza: hidrogenoa

Bizkaiko Teknologia Parkea Espainiako Estatuko beste parke batzuekin batera ari da EBren Zero Hytechpark proiektuan parte hartzen. Egitasmo pilotua da, azken xedea parke teknologiko jasangarriak lortzea dituen. “Esparru asko daude lantzeko, eta horietako bat hidrogenoa da”, azaldu digu Diazek. Alderdi teknikoaz, alegia ikerketaz, Fundación Hidrógeno Aragón arduratzen da guztiz. Bizkaiko Parkeari, berriz, proiektuaren dibulgazioa egitea egokitu zaio.

Bide ugari urratu daitezke jasangarritasunaren bila, Diazek dioskunez. Baina kasu honetan, esan bezala, hidrogenoa da ardatz nagusia. “Energia berriztagarrien arazoetako bat da gehienetan kanpoko baldintzen menpekoak direla: haizea, eguzkia, olatuak... Momentu batzuetan sobera ekoizten da, eta



HIDROGENOA

beraz forma solidoan. “Gas moduan gordez gero presio handi baten pean gorde behar da”, azaldu digu Xabier Diazek, “ohiko presio eta tenperaturan hidrogenoak oso dentsitate txikia duelako”. Hori traba da, noski. Batetik, presio handi horiek lortzeko energia gastua egin behar delako; bestetik, denbora behar delako presurizatzeko. Hidrogeno-auto baten biltegia betetzeak luzeago jotzen du gasolinazkoa betetzeak baino. Hori bai, auto elektriko baten

bateria kargatzea baino laburragoa da.

ezin da metatu. Beste momentu batzuetan, berriz, falta dago”. Helburua da soberakina gordetzea eskasia dagoenerako, baina egitea ez da esatea bezain erraza. Eta irtenbideetako bat hidrogenoa izan daiteke.

Hidrogenoa, energia bektore

BTEKera egindako bisitaren azken zatian, bideo batek hidrogenoaren aukerak azaltzen dizkie ikasleei. Hari esker jakingo dute kontsumitzen ez den elektrizitatearekin hidrogenoa sor daitekeela, elektrolisi bidez. Prozesuaren xehetasunetan alferrik ez galtzeko, esan dezagun hasieran ura dugula, eta hari korronte elektrikoaren ezarritik hidrogenoa eta oxigenoa lortuko ditugula. Bada beste bide bat, eraginkorragoa: hidrokarburoetatik ateratzea. Baina sistema horrek CO₂ askatzen du; ez dirudi, beraz, bilatzen ari garen jasangarritasunaren helburuarekin erraz ezkartzeko modukoa.

Modu batean zein bestean lortuta, hidrogeno hori gerora erabili ahal izango dugu energia eskuratzeko, baina arazoa da berehala gorde behar dela, bestela badoa. Kontuan hartu behar da unibertsoko elementu kimiko arinena dela; horregatik ezin da gas forman aurkitu Lurrean, airea baino askoz arinagoa izanik ihes egiten duelako.

Hidrogenoa masa unitate bakoitzeko energia gehien duen fluidoa da, eta energia lortzeko erabiltzen denean –oxigenoarekin konbinatuz– ez du hondakinik sortzen. Ez da harritzekoa, hortaz, zenbait ikerlarik egindako iragarpena: etorkizuneko ekonomia hidrogeno-ekonomia izango da. Zergatik ez da hala oraingoz? Metatzeko zailtasunengatik, batez ere.

Batez ere bi metodo erabiltzen dira hidrogenoa gordetzeko, arestian aipatutako bideoak aipatzen duenez: gas modura edo hidruro modura, hots, metal batekin konbinatuta eta

BTEKeko Hidrogeno eta Energia Berriztagarrien Tailerrean, ikasleek eurek bereizten dute hidrogenoa uretatik, elektrolisi bidez. Ondoren, hidrogeno hori erabiltzen dute auto txiki bat mugiarazteko.

“Maila esperimentalean oraindik”

Hidrogenoa hidruro eran gordetzeak presurizatu beharra saihesten du, eta bide batez ez da hain arriskutsua –hidrogenoa oso gas sukoia da–, baina nekez balio lezake, adibidez, auto baterako: hidruroa lortzeko oso metal astunekin konbinatu behar da gasa, eta beraz biltegiak pisutsuegiak dira. Alternatiba ona izan litezke etxerako, hidrogenoaren teknologia garatu ahala beti ere. “Kontuan hartu behar dugu hau guztiau oraindik oso maila esperimentalean dagoela”, gogorarazi digu Diaz Silvestrek. Bizkaiko Teknologia parkearekin batera Zero Hytech proiektuan dabilen Fundación Hidrógeno Aragónen ikerketalarro nagusietako bat, hain zuzen, hidruroak eratzeko metalik egokiena aurkitzean datza.

BTEKeko bisitari gazteei ez zaizkie zailtasun horiek ezkutatzen. Alde on eta txarrak dituen aukera bat da hidrogenoa, horixe jakin dezatela da helburua. Edozein kasutan, ikasleak sakoneko azalpen teorikoekin gogaitzea saihesten dute gidariek. Bideoa ikusi eta energia berriztagarriei buruzko zenbait azalpen jaso eta gero, berehala ekiten diote lantegiaren alde praktikoari. Lehenik, elektrolisi erreakzio bat eragin beharko dute. Bigarrenik, ur molekula puskatu eta oxigenoa eta hidrogenoa bereizi ondoren, bigarrena baliatuko dute erregai-pila batean energia lortzeko. Prozesua lehengoaren alderantzizkoa da: oxigenoa –oraingoan zuzenean airetik hartua– eta hidrogenoa elkartzeko, ura, elektrizitatea eta beroa ematen dituen erreakzioan. Elektrizitatea horrekin, azkenik, auto txiki bat mugiaraziko dute. Helduak direnean benetako hidrogeno-auto bat gidatzeko aukerarik izango ote dute? ■





INIGO AZKONA

**Asier
Blas
Mendoza**



EHUKO
IRAKASLEA

Estatu kolpea Ukrainan

XXI. MENDEKO inperialismoak demokrazia eta giza eskubideak erabiltzen ditu aitzakia moduan, garai batean kristautasuna eta modernizazioa erabili ziren bezala. Aitzakiak aldatu dira, baina ez metodoa. Lehenengo hegemonia politiko-kulturala lortzeko misiolariak bidaltzen dira (garai batean elizarentzako egiten zuten lan, gaur GKEetarako), beranduago merkataria eta “enpresariak” doaz ekonomia kolonizatza eta, azkenik, zuzeneko kontrol politikoa dator (militarrekin eta gobernu txotxongiloekin).

Misiolari gehienek itsuan sinesten dute beraien lanean; aspaldikoez pentsatzen zuten kristautasuna zabalduz arimak salbatzen zituztela, oraingoek aldiz, sinetsita daude balore mendebaldar zaleak barreiatuz giza eskubideen eta demokraziaren defentsa egiten dutela. Kontua da Ukrainan demokrazia liberal bat zegoela, praktikan herrialdea mendebaldetik gertuago zegoen Errusiatik baino eta NATOk indar armatuekin kolaboratzen zuen. Baina, EBk eskainitako akordio komertziala kolonizazio ekonomiko hutsa baino ez zenez, Janukovitx ez zen igo tren horretara Errusia ekonomikoki laguntzeko prest agertu zelako.

Ez zen erraza izan estatuko kolpea ematea. Hasierako misiolarien manifestaldi baketsuak azkar bilakatu ziren biolentoak. Poliziek eskautak ziruditen eta horri esker, eskuin muturreko sektoreek eraikin publiko ugari hartu zituzten. Gabonetako barealdiaren ostean, urtarilean shock doktrina aplikatu zuten Ukrainan

Une horretatik aurrera GKEetako misiolariak atsekabe soziala mobilizatzen hasi ziren gobernuaren kontra. Victoria Nuland, AEB kanpo harremanetarako idazkariordeak berriki esan du 1991tik AEBk 5.000.000.000 dolar inbertitu dituela misiolari eta GKEetan Ukrainan. Berak ere argi adierazi zion AEBetako enbaxadoreari Kieven bere hautagaia

Ukrainako boterea hartzeko Jatseniuk zela. Aste batzuk beranduago estatuko kolpea gauzatu eta hau izendatu zuten lehen ministro.

Ez zen erraza izan estatuko kolpea ematea. Hasierako misiolarien manifestaldi baketsuak azkar bilakatu ziren biolentoak. Poliziek eskautak ziruditen eta horri esker, eskuin muturreko sektoreek eraikin publiko ugari hartu zituzten. Gabonetako barealdiaren ostean, urtarilean shock doktrina aplikatu zuten Ukrainan. Manifestari batzuk pistolak eta fusilak erabiltzen hasi ziren poliziaren aurka egiteko, baina baita ere erreakzio bortitz bat sortzeko. Ez zen iritsi. Ondoren, frankotiradore batzuek ehun manifestari eta polizia inguru erail zituzten. Orduan bai, estatuko kolpe bortitz bat gauzatzeko shocka sortu zen. Mendebaldeko hedabideek behin eta berriro Janukovitx seinalatzen zuten arduradun gisa. Iturri informatibo alternatiboez kontrakoa zioten, ez zeukan logikarik gobernuak hori egitea bere amaiera suposatuko lukeelako. Edonola ere, mendebaldeko propaganda makinek egin zuten beraien epaiketa. Europar Batasunak zigorrak iragarri zituen Ukrainaren aurka. Azkenean, presio internazional handi baten erdian Janukovitx akordio batera iritsi zen oposizioarekin, Alemania, Polonia eta Frantziako bitartekaritzarekin. Berak bere parte batean zenean, polizia erretiratuz, oposizioa indar faxistek ordu gutxitan boterea hartu zuten. Estatuko kolpea gauzatu egin zen: presidenteak eta diputatuak ganbera erdiak ihes egin zuten eta gelditu ziren diputatuak neurri ilegalek, neofaxistak eta neoliberalak bozkatu zituzten paramilitarrek “zaintza” pean.

Beranduago jakin dugu Catherine Ashton eta Estoniako kanpo harremanetarako ministroaren arteko elkarrizketaren berri. Azken honek Kiev bisitatu ostean garbi esan zuen zantzu guztien arabera frankotiratzaileak oposizioa kideak zirela eta gobernu kolpista berriak ez zituela gertakariak ikertu nahi. Hala ere, hedabide gehienek paso egin dute berriaz, izan ere, ikusi nahi ez duena baino itsuagorik ez dago. ■





EZ gORA INKLUSIBOAK
izaten ohal sistema
INTRUSIBO batean



Karlos Gorrindo Etxeandia

EUSKARA TEKNIKARIA ♦



INIGO AZKONA

Gureak...

EGIBARREK MEZA ESANGO DU, eta epistolari adierazi ponentzia Estatus (Estatutu) berriaren abiapuntu izango dela eta ez helburu. Baina ponentzia hau enkortsetatuta dator hasieratik, PSOEek jarritako baldintzak EAJ-PNVk onartuta: Espainiako marko juridikoa eta indarrean dagoen legedia. Hau da, Espainiako Estatua izango da berbaldi-hausnarketa horren fiskalizatzailea. Baina PNVren akordio honen aurretik beste bat adostu zuen EH Bildurekin, ezer izenpetu ez izanagatik ere.

Eta zer egin du PNVk? EH Bildu baztertu eta PSOE magalean hartu, horixe egin du beste behin ere. Eta libre da ibilbide horretan nahi dituen bidaideak aukeratzeko, jakina! Baina aurretik hitzartuta dagoenari muzin egin eta maitalearen besoetara goxogoxo joatea ez da txalotzeko moduko portaera, ez duina ere. Errespetuzkoa esan nahi dut. Ideologikoa. Politikoa, beren burua abertzaleztat izanez gero. Argi eta garbi utzi du beste behin ere PNVk Ezker Abertzalea ez duela alboan nahi ("Horiekin ezta dirutan ere", esan du Azkunak) alderdiaren jardura egunerokoa, askoz ere erosoago sentitzen baita "Espainia bat eta bakarra" aldarrikatzen duenarekin, Espainiatik eta Frantziatik ospa egin nahi duen Sorturekin baino. Baina min ematen dit PNVren aldaketa kamaleonikoak. Ez

da berria, bai, badakit. Berdin dio norekin elkartu bere aurrekontu politikoak lortzen baditu. Ezker Abertzalearekin izan ezik. Egia da urte luzeetan gurean ereindako mesprezu eta mesfidantza ez dela gauek egunera sendatzen eta denbora beharko dugula elkarrenganako konfiantza hori lortzen. Denbora izango da zauri guztien sendagarri.

Urte luzeetan gurean ereindako mesprezu eta mesfidantza ez da gauek egunera sendatzen, denbora beharko dugu elkarrenganako konfiantza hori lortzen

Dena den, Ezker Abertzaleak ("PNV barik ezin helburua lortu, baina PNVrekin nora?") pedagogia politikoa eta portaera eta jarrera eraldaketa egin behar duelakoan nago, PNV eta Ezker Abertzalea inoiz eskutik joango badira. Maximalismoak teoriarik ondo daude. Praxi politikoan, oster, unean uneko lorpen gauzagarrien atzetik jardun behar da, behin betiko etsiko, aspertuko eta abailduko ez bagara. Konfiantzazko harremana lortu

behar dugu, baina onartuta Ezker Abertzaleak oraindik bakarrik egin behar duela desertuko ibilbide politiko instituzionala, denboragarrenara konfiantzazko harreman hori, politikoa baino areago psikologikoa dena, lortu ahal izateko. Eta inori otutzen bazaio "hobe bakarrik, txarto lagunduta baino", Ezker Abertzalea lokalista eta probintzianoa bilakatuko da. Ezdeusa. ■



DANI BLANCO



Kattalin Miner



KAZETARIA

Baimenik gabe

BATZUETAN, baimenik eskatu gabe hartzen ditugu kaleak, txikitu haien sinbolo patriarkal eta kapitalistak, Rajoyri odoleztatutako eskuminak bidali, ertzainei barre egiteko baimenik ez dugula eskatuko gogorarazi, manifa bat hasi eta behar ez zen lekutik jarraitu, komunera gogoak agintzen digunean joan, gure egitasmoak grabatu eta zabaltzeko gure buruak aspaldi baimendu genituela gogoratu, hitz egiteko eskubidea eta hitz ez egitekoa ditugula oroit... beti baimenak baimen.

Baina, aldiro-aldiro eta normalean, probetza egiteko baimena eskatu behar dugu. Manifestatzeko, elkartzeko, aritzeko, baime-

na eskatzera behartzen gaituzte. Bisitatzeko epailearen baimena behar dugu, maitatzeko beste epaile batena. Abortatzeko psikiatra batek, mediku batek baimenduko gaitu. Informatzeko, adierazteko, baimena eskatu behar dugu, ezin dugulako nahi duguna nahi dugun moduan esan eta pentsatu. Eta pentsatzeko baimenduak dauden pentsamenduak bakarrik garatu ditzakegu.

Eta hala nenbilela, baimenik gabeko pentsamenduak ordenatuz, kaleetako hormek argi gogorazi didate: inoiz inork ez duela baimenik eskatu historia aldatzeko. ■



**Mikel Garcia Idiakez**

♦ ARGIAKO KAZETARIA

Gizonik ez Lilatoian

URTEROKO LELOA DA, badakit: zergatik ezin dugu parte hartu gizonok Lilatoian? Eta aurren ere kezuka entzun dut ezagun bat, baina ez “zergatik ezin dugu emakumeekin batera joan, aldarrikapena elkarrekin eginez” tonuan, baizik “parekidetasuna eskatzen dute, baina gero gu diskriminatzen gaituzte, bada gero ez daitezela kezatu” gaineratuta.

Lehenengo taldeko gizoni esango nieke bigarren taldekoen pentsamoldea oraindik ere hain zabaldua dagoen bitartean, beharrezkoa dela Lilatoia; eta bigarren taldekoentzat, hemen argudio gutxi batzuk:

– Behingoz, baita modu bisualean ere, protagonistak –erabatekoak, bakarrak– emakumeak izan daitezten. Eta helmugara iristen lehena –eta garaile bakarra– ere emakumezkoa izan dadin.

– Behingoz, modu sinbolikoan, literalean eta bisualean, emakumeek kalea har dezaten, espazio publikoa emakumeena –eta soilik beraiena– izan dadin.

– Behingoz, rolak alda daitezten: emakumeek jaso ditzaten txaloak, eta gizonak egon daitezten espaloian animatzen eta seme-alabak zaintzen.

– Jabetu gaitezen, arreta deitzen digula denak emakumezkoak izateak lasterketan, baina ez maratoni-erdi eta lasterketa “herriko” pila batean korrika ari diren %90a gizonetzkoak izateak.

– 3.500 emakume –bereziki ama tartean bada– korrika ikustea edozein kanpaina baino eraginko-

rragoa delako neskatoak kirolera animatzeko.

– Baztertuta sentitzen diren gizonen enpatizatu dezaten emakumeek sarri sentitzen dutenarekin, kontziente edo inkontzienteki lasterketan –eta makina bat ekitaldiren– eredu oso maskulinoa baita: Dorleta Ugalde kirolariaren hitzetan, “onartuak direla eta kontuan hartzen dituztela sentitu behar dute emakumeek kirol munduan, bestela lekuz kanpo ikusten dutelako beren burua, giro arrotzean”.

Lehenengo taldeko gizoni esango nieke bigarren taldekoen pentsamoldea oraindik ere hain zabaldua dagoen bitartean, beharrezkoa dela Lilatoia; eta bigarren taldekoentzat, hemen argudio gutxi batzuk

– Horregatik guztiagatik diskriminazioa, diskriminazio positiboa, oraindik beharrezkoa delako; nola ulertu bestela hainbeste emakume animatzea festa giroa oinarri duen Lilatoian parte hartzera, eta hain gutxi proba mistoetan?

– Lilatoia izan dadin lehen urratsa eta tranpolina, emakume horiek guztiek proba mistoetarako jauzia egin dezaten. Izan ere, nik ere emakumeekin batera egin nahi dut korrika, baina ez martxoaren 8an. ■

Sortu den eztabaida irakur dezakezu blogean.



IRITZIAREN LEIHOA

BERTSO BERRIAK

Kontraekonomia jardunaldiak



BIZKAIA

Iñaki Aurrekoetxea

♦
Doinua: Mutil koxkor bat.

Lezio bat da ikasten dena behin Sarrikora sartuta: kapitalaren morroiak gara bizitzan hasi ta buka! Hile honetan markatu al dio Kontraekonomiak pautak! Nahiz dirudien, ez dauka ezer ekonomiaren aurka; justuago bat birpentsatzeko ziotik gehiago dauka.

Kapitalismo basatiari sozialismo dosia... Gogora jatort behin Maialenek BECen adierazia; Andonirekin giltzurrun-pasan, argitu zuen auzia: “lehen bi ta zero, ta orain bana”, hura zela justizia. Gizartegintzak beharko lukeen gizalege nagusia!

Krisia sortu dutenak daude alfonbra gorritan bero, ta bitartean aldaketarik ez dezagula espero. Zer litzateke gure buruan ekuazio hau balego: behar ez dudan baliabide bat eskuratzen dudanero, besteren batek behar duena ez du aurkituko gero. ■



Angel Erro

♦ IDAZLEA



DANI BLANCO

Maitasunez

“AMODIOA EZ DA EXISTITZEN, baina bere ondorioak bai”, aurkitu dut paperezko musuzapi batean nire letraz idatzita. Maitasunaz tarteka idaztea da, poetek idazten dakiten eta taberna batean beste zeregin hoherik ez duen gainerako jende guztiarekin partekatzaren duten idatzizko mania gutxienetakoa.

* * *


Orain gutxi Iñigo Astiz eta *Baita hondakinak ere* bere poema liburuko hainbat irakurle bildu ziren, lan horixe hizpide. Partaideetako batek Astizi liburuak (edo akaso berak) erromantikotik gutxi izatea leporatu zion. Poetak maitasunari buruz zuen kontzeptzioa bikainki azaldu zuen. Alegatu zituenetatik gogoan dut esan zuela edozein giza harreman prekariora dela eta maitasunezkoa ere bai, eta haren gainean eraiki den berbontzikeria guztitik aske ibili nahi zuela berak –gaizki aipatzen ari naiz Astiz, nire azalpenak ez duelako, bereak bezala, distirarik–. Amodioa ez da existitzen, baina bai bere hondakinak.

* * *

Amodioa gaizkiulertu askoren metaketa da. Azokan ibili eta jaka bat eta Lukrezioaren liburu bat (Patxik lerrakeen modura) feriatu ondoren, garagardo pare bat hartzera eseri gara. Orduantxe sentitu dudun zorionaldia nahasten badut eta izen handios bat paratzen badiot errua nirea baino ez da.

* * *

Maiteminduta gaudenean –dio kontuaz xehekien idatzi duen idazleak, zeinaren izena aipatzea merezi ez baitu–, amodioa hain da handia non ez zaigun barruan sartzen: maite dugun pertsonarengantz irradiatzen du, bertan bidea moztan dion superfiziei bat topatzen du, abiapuntura itzularazita; eta talkak bihurtzen digun samurtasun hori, geure samurtasuna bera dena, besteren sentimendutzat jotzen dugu, eta gogokoagoa dugu gure maitasuna itzultzean joatean baino, ez baitugu nabaritzen geuregandik datorrela.



Antton Olariaga

* * *

Terrazan eserita, maitale batek besteari galdetu dio, erretorikoki (nahi nuke pentsatu), ea nola maitatzen ahal duen hainbeste, “*how can I love you so much?*”. Erantzuna zinikotzat har liteke, baina poetikotzat hartu du: “Zu eta zure maitasunaren artean suertatu naiz”.

* * *

Amodioa (gutxienez) biren arteko gezur partekatu da. Amodioa hitzen bidezkoa da. Begietatik desiratzaren dugu. Hizkuntzatik maitemintzen gara. Horregatik da amodioa poeten eraikuntza eta horregatik behar lukete poetek deseraiki eta desberbatu, gorputzera itzuli.

* * *

Maitaleek elkarri etengabe elkar maite ote duten galdetzeak erakusten du zer osagai badaezpadakoez egin da goen. Maitale bat gezurra esatera behartuta dago, jolasean jarraitu nahi izanez gero, edo –bera ohartu gabe– maitatzera behartuta dago.

* * *

Lukrezioaren *De rerum naturat*ik aipu bat baino ez dut ezagutzen, sexu harremanaren deskripzio ederra, Sarrionandiaren itzulpenean maiz irakurria. Liburuaren gaztelaniazko itzulpenean bilatu dut, aurkibidean ere, eta neke zait pasartea aurkitzea. Editoreak “*El amor*” epigrafepean paratu du latinez *De rebus veneriis* dena (Venusen kontuak), modu adierazkorrean hazia- ren nondik norakoekin hasten dena.

* * *

Amodioa ez da (hitz bakar batean) existitzen eta horren beharrik ez genuela sinetsita nengo. Kontzeptu absolutuen artean gutxien kuestionatua da eta eraistea lan handiena eman leza- keena. Hala ere, bitxia egiten zait bizitzen ari den berpizkundea. Bada maitasuna aldarrika ari den *queer* filosoforik, eta *queer* izan gabe euskal filosoforik ere bai. Beude. Nik lehenagotik daukat hementxe aipatu ditudan eta aipatu ez ditudan egile guztiek maitasunaz (sic) zer idatzi duten. ■



Emakumeak Euskal Herriko inauterietan

Inauteria transgresioa, urraketa, haustura da. Gure nortasuna ezkutatu, eta beste norbait izatera pasatzen gara, beste zerbaitetan transformatzen gara. Mozorrotzean gure eguneroko identitatea ezabatzen dugu, eta tarte batean, beste zerbait izatera jolasten gara. Egunerokoan kateatuta bizi diren norbanako arruntak izateari utzi eta ametsetako zein amesgaiztoetako mozorroak izatera pasatzen gara. Zintzotasun aspergarria utzi eta anonimatua ausart, zirikatzaile, lotsagabe, transgresore izateko aukera eskaintzen digu.

| OIER ARAOLAZA |

Argazkiak: Gari Garaialde

ORENSETIK DALMATIARA eta Sardiniatik Nafarroara dago zabaldua hartz bortitz, arlekin koloretsu, joaldun zaratzu edo dantzari apain mozorrotzeko ohitura. Eta emakume. Emakumea, edo haren irudia bederen, behin eta berriz ageri zaigu inauterietan. Gizonek maite dute emakume mozorrotzea, andre nobia aingeruar edo emagaldutik, trabestismoa gozagarri zaie gizonei. Soineko, ileorde, ezpain margotu eta titi pareta soinean, beren gizontasuna zalantzan jarri gabe emakume jantzi eta emakume gorpuzteko aukera ederra eskaintzen dio gizonari inauteriak. Gizon nortasuna, bere genero duintasuna urratzeko kezkarik gabe gainera. Are gehiago, gizontasuna aldarrikatzeko ere baliagarri izan liteke. Bai, emakume irudia ohikoa da inauterietan, gorpuzten duena gizonetako baldin bada.

Beste kontu bat da emakumeak mozorro festan parte hartzea. Transgresioa gizonetako barruti eksklusiboa bailitzan formulatzen dugu mozorro festa. Askatzailatzat saltzen



Jazarpen eta eraso matxistarik gabeko hiri baten alde!

NESKENTZAT

Egoera deserosoa bada erasoari aurrea hartu eta adi egon. Segurtasunez ibili, kalea eta gaua gureak ere badira. EZ esateko eskubidea duzu. **ERASOA GERTATU BADA ZER EGIN ERABAKITZEKO ESKUBIDEA DUZU.**

MUTILENTZAT

Indarkeria matxista ez da soilik eraso fisikoa eta bortxaketa, harremanak izatera behartzea eta baimen gabeko ukituak eta musuak ere **ERASO MATXISTAK DIRA**. Gogoratu ezetza, ezetza dela eta baboseatzea ez dela ligatzea. Ez justifikatu eraso matxistarik eta erasotzaileari **ASKI DA** esaiotzu.



dugun errituala, gizonezkook gizartean dugun posizio hegemonikoa sendotzeko baliatzen dugu. Lan erritmoarekin hautsi dezakegu inauterien bidez; Zer esanik ez seriotasunarekin, ordenarekin, isiltasunarekin, otzantasunarekin... Baina genero bereizketa ukiezina zaigu nonbait. Hausturari mugak, genero mugak jartzeko, asmatzeko gai garela erakusten dugu inauteriaren bidez.

Inauteriaren askatasuna Atenaseko demokrazia zaharraren pareko gertatzen da. Politikoki aitzindaria zen Greziako sisteman hiritar guztiek zuten gobernu erabaketan parte hartzeko eskubidea. Hiritarrak gizonezko libreak soilik ziren ordea, emakume eta esklaboek ez

zuten txartelik zozketa horretarako. Eta hortxe bertan daukagu jarrita zepoa orain ere. Tradiziozko festaren pedigria aldarrikatu nahi duten zenbait inauteritan, anabasaren erdian arauak, genero bazterketa gauzatzen jarraitu ahal izateko arauak, asmatzen dituzte oraindik, erritualaren, sinbologiararen edo tradizioaren izenean. Noiz eta araurik gabekotzat aurkeztzen dugun aroan bertan.

Mozorrotzea akzio transformatzailea da. Aztikeriak ez du sobera irauten, ordu batzuk, egun batzuk gehienez, hordialdiaren arrastoa desagertu arte. Baina magia indarrean den tarte horretan, oskolaren eraldaketak identitate berria eskaintzen digu. Ordura arte gurea izan denarekin zerikusirik ez duen nortasun berria daramagu soinean eta mozorroa jokatzen dugu inoiz besterik izan ez bagina bezala. Mozorroak ez du gurekin lotura handirik, ez da gu, eta tamainaz aparte, ez dauka gure antzik ere.

Txirikorda atzerakoi absurdoa da zenbait mozorro janzteko genero mugak jartzen ibiltzea. Edozein testuingurutan ulergaitza dena, zentzugabea bihurtzen da inauterietan. Udalak desfilea antolatzea da inauteri bat hiltzen saiatzeko estrategia on bat. Beste bat, mozorrotzeko arauak ezartzea. Eskerrak aratusteak arau hauste bihurtu nahiak inauteri gehienetarako sarbidea eskaini dien emakumeei. ■

Argazki gehiago webgunean:
www.argia.com











Haur eta Gazte Literatura

Zurginaren ipuina
Iban Barrenetxea

Itzultzailea: Arkaitz Goikoetxea.
Txalaparta, 2013

Lehengoa hobetzen

IBAN BARRENETXEA ilustratzaile gisa da ezaguna gure inguruan, baina sarritan gertatzen den bezala, ilustratzaileak bere testuak idazteari ekin eta *Zurginaren ipuina* lana eskaini zigun 2011n (eta Euskadi saria eskuratu bigarren urtez jarraian, kasu honetan gaztelaniazko arloan). Orain, Arkaitz Goikoetxearen itzulpenari esker, euskaraz goza dezakegu Firmin zurginaren istorioaz. Izan ere, bere lana bikain egiten zuen zurgin baten kontakizuna dugu liburu hau: “Hark egindako gurpilak hain ziren perfektuak, aski izaten zen begiradarekin bultzatzea jiraka has zitezen. (...) Eserlekuak probatu, eta norbaitek zin egin zuen aurrerantzean ez zela beste inon eseriko”. Zurginaren lana, baina, aldatu zen Von Bonbus baroiaren mezulari bat iritsi zitzaionean Firmini: “Presazko mezua: azaldu berehala baroiaren jauregira”.

Irakurleari Txinako tradizioko kontakizunak gogorarazten dizkio aurreko pasarteak; pintatzaile finarenak, Hang Gan-en zaldi magikoa edo Sarriñandiarren *Enperadore eroa* ipuin zoragarria; izan ere, iturri beretik edanda daude kontakizun hauek guztiak, baita Firminena. Langile fina, primeran aritzen dena artea sortzen, gauza ederak egiten, zoragarri politak eta ia perfektuak... eta botere nahian, langilearen trebetasun hori erabili nahi duen jauntxoaren istorioa.


Barrenetxeak testuaren eta irudiaren erritmoa tartekatuz irakurlea erabat sartzen du istorioan. Von Bonbus baroiaren berri ematen duten bi irudi zabaletan, zurginaren bila doazenean eta baroia ohean gaixorik ikusten direnetan, barneratzen gara zurgina eta baroiaren arteko harremanen mundura; baroiak, bere gudu eta handinahiak bultzatuta, hainbat gorputz atal galduko ditu... eta guztietan zurginak zurezko ordezkotzat egingo dio guztien onepena jaso: “Lan bikaina, zurgina jauna, bikaina benetan! Zurezko esku hau, zalantzarik gabe, lehengoa baino hobea da!”, eta esku biak eta zangoak galdua ere baroiak gerra ontzi batean burua galdu arte. Eta zurezko burua egindakoan, baroiak ez baina haren ingurukoek adierazi zioten zurginari bere lan aparta: “Lan bikaina, zurgin jauna, bikaina benetan! Zurezko buru hau, zalantzarik gabe, lehengoa baino hobea da!”.

Eta hitz horiekin amaitzen da, ironia puntu hori jarrita, ipuina.

Baroiaren hari nagusi horren barnean, baina, Barrenetxeak beselako istoriotxo batzuk ere, errotari xuhurrarena kasu, sartu dizkigu opari; zurginaren izaera hobeto ulertzen lagungarri eta irakurle guztion gozagarri.

Irudien mailagatik zen ezaguna autorea eta orain tes-tuagatik ere; eta guk ere, hauxe esan genezake, ipuinean bezala: “Lan bikaina... lehengoa baino hobea!”. ■

Xabier Etxaniz Erle



Tantak.
Hainbaten
artean
EHU, 2013

25 urte irakaskuntzaz gogoetan

DAGOENEN 25 urte egin ditu *Tantak* aldizkariak, pedagogiaz eta euskarazko irakaskuntzaz hausnarreran. Hezitzaileei zuzendua, EHuko irakasleek egina da eta sei hilero kaleratzen dute. Urte haue-tan guztietan egile ugari hartu du parte eta artikulua, esperientzia eta ikuspegi mordoxka argitaratu dira; horien aurkibidea egin dute azken alean (25. bolumena, 2. zenbakia). Eskoletako hizkuntza ereduak, ikasteko ohiturak, teknologia berrietan irakasleek behar duten prestakuntza, ikastetxeetako antolakuntza, ahozko literatura, jolas librea, ikaskideen arteko harremanak, talde baloreak, auto-ikaskuntza, motibazioa, ebaluazio motak, heziketa artistikoa, ikas-estrategiak, generoa, gaitasun emozionalak, sormena, gurasoen rola, eskolasareak, elebitasuna... Ugariak eta anitzak dira jorratutako arloak, eta gai horietakoren batean sakondu nahi duenak gida interesgarria aurkituko du azken zenbaki honetan.

Horrez gain, beste lau artikulua ere jaso dituzte aldizkarian: web 2.0 tresnetan oinarritutako irakaskuntza prozesuaz; orientazio eta tutorretza planen inguruan; Donostialdeko gizarte eta hezkuntza arloko zerbitzuetako profesionalen lanari buruz; eta eztabaida taldeetan erabiltzeko NVivo8 erremintaz. ■

**Mikel Garcia
Idiakez**





Tradition 2.1

Korrontzi

Baga-biga, 2013

Sustraiko musika: ikuspegi berritzaitetik mundura

NAZIOARTEKO jaialdi eta txapelketan parte hartzeko aukera eskaini zion *Getxo* lanak (2008) Korrontzi taldeari. Urte hauetan, trikitiaren esparrua oinarri hartu eta Agus Barandiaran eta bere taldekideek Euskal Herriko musika tradizionalari gaur egungo ikuspuntua emanez, munduko hainbat herrialdeko artistekin oholtza partekatzeke zortea izan dute. Ibilbide honetan egindako lagun horietako asko topatuko ditugu *Tradition 2.1* diskoan: Justin Val, Tenores di Neonelli, Phil Cunningham, Jesús Cifuentes (Celtas Cortos)... Hirurogei musikaritik gora izan dira euren artea erakutsi dutenak ezohiko lan kosmopolita honetan, eta gure artean ezagunak diren hainbat artista ere aritu dira zerrenda luze horretan: Mikel Markez, Alex Sardui, Mikel Urdangarin, Garikoitz Mendizabal...

Baga-Biga etxeak 3 urte behar izan ditu proiektu hau argitaratzeko, koordinaketa lana ez baita nolana hikoia izan. Kontuan izan behar da 26 grabazio estudio erabili direla diskoaren grabaketarako (Vigo, Madril, Manchester, Ramallah, Zimbabwe...) eta ahalegin handia egin dutela munduko hizkuntza eta soinuaren ekarpenean. Lan honi eskainitako orduak ere inbertsio ekonomiko handia izan da ekoizleentzat, luxuzko edizioa kaleratu baitute. Hamasei kantuz osatutako lana disko-liburuxka formatuan aurkeztu zaigu eta musikarien zerrenda, kanten azalpenak edota instrumentuak ezagutu ahal izateko hiztegia ere kontsulta dezakegu. Guztia, lau hizkuntzatan: euskaraz, gaztelaraz, frantsez eta ingelesez.

Honen guztiaren osagarri, bi klip erakusten dituen DVDa: *Sardos*, 2013an Huarteko (Nafarroa) Arte Garaikideko Zentroan Oinkari dantza taldearekin batera grabatutakoa, eta *Aupa Maurizia*, 2012ko Bilboko Aste Nagusian Ygor Yedra & Oksana Kucheruk dantzariarekin zuzenean grabaturiko emanaldia.

Hamasei abesti. Hamasei istorio, azken finean. Bakoitzak du bere iturria, bere sorrera eta bere garapena. *Isukitzeko aldia* da disko honetan aurki dezake-

kegun abestirik bitxienetakoa. Arreta ematen du trikitilariari eta, bide batez, trikitiari eskainitako kantu honetan soinu txikirik ez entzuteak. Trikitiaren doinuaren alaitasunetik urruntzea izan da egilearen nahia, eta melankolia ukitua emango zion soinua Israelgo Liron Man-ek jotzen duen *Handpans*-en topatu du. Tomas Arrizabalaga (Tomas Sitzes) Euskal Herriko trikitilari onenetakoari eskainitako kanta da. Trikitilari zaharrak 1975ean Bilboko Herri Irratian egindako bere azken elkarrizketa hartzen du oinarri, eta bere ahotsa da gidari. Elkarrizketa honetan trikitiaren etorkizunari buruzko kezka agertzen zituen, bere ezaguerak oinordekorik ez izatearen zalantza. Zorionez ez da horrela izan. Beste hainbat artistak bezala, tradizio hori bizirik mantendu ahal izateko ahaleginak egin ditu Agus Barandiaranek.

Munduko soinuak hauspo txikiarekin uztartuz, kultur ugaritako musikarien topaketa liluragarria lortu du Korrontzi taldeak. Zenbait estilo fusionatzean nahasketa bitxiak sortu dira: Portugaleko Fadoa porrusaldarekin, italiar musika arin-arinarekin, galiziako soinuak biribilketarekin edota flamenkoa fandangoarekin, esaterako. Aipaturiko azken estilo honetako bi kantetan –*La Foule* eta *Flamendango*– sari mordoa (horien artean hiru Grammy) jaso duen Javier Limonek jotzen du gitarra. Artista, konpositore eta ekoizle honek Agus Barandiaranen abesti guztiak ekoitzi ditu eta koordinazio teknikoaz ere arduratu da.


Udaberrian Madril,artzelona eta Galizian aurkeztuko dute *Tradition 2.1* diskoa, eta, euren musika ahalik eta gehien zabaltzeko saiakeran, aurtan ARC Music (Munduko Musikak) Erresuma Batuko etxearekin ekoizteko asmoa dutela adierazi dute.

Trikitiak etorkizunik izango ez zuela penaturik agertu zen Tomas trikitilari harro azalduko zatekeen bere oinordetza eta, era berean, gure kultura erakutsiz munduan barrena dabilela ikusi izan balu. ■



Olatz Korta

Gaia: zuhaitzak

A portrait of a man with dark hair, wearing a dark button-down shirt, smiling slightly. The photo is tilted and has a white border with red dots at the top left corner.

	B	G	H	A	
	G	R	I	U	M
	L	A	Z	E	R
	I	T	A	R	A
M	G	I	T	A	R
	A	D	O	E	I
M	N	D	O	E	T
	K	E	S	A	I
	H	A	G	A	N
	L	A	U	A	K
H	A	R	T	A	I
	G	O	R	K	I
	M	A	K	N	E
	I	O	R	A	N
					T
					S
					U



Pankreas
Tartean Teatro

Aktoreak: Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza.

Zuzendaria: Jokin Oregi.

Non: Bilboko Arriaga Antzokia.

Noiz: martxoaren 12a.

Erretzeak hiltzen du

MARTXOAREN 12AN estreinatu zuen Tartean Teatro taldeak *Pankreas* antzezlan, Bilboko Arriaga antzokian. Euskal antzerkigintzaren hiru totem, Patxo Telleria, Mikel Martinez eta Joseba Apaolaza, bildu dira Jokin Oregiren zuzendaritzapean. Patxo Telleriak bertsoz idatzitako antzezlan da, umorea eta tragedia hein berean dituen. Hitz neurtuok ñabardura eta espresio berriak ematen dizkiote hiru lagun arteko afari “hilkorra” oinarri duen antzezlanari.

Pozik daude Tartean Teatroko kideak, *Lingua Nabajorum* antzezlanak Donostia Saria irabazi du eta.

Hiru lagun arteko afaria kontatzen du istorio honek. Lehenak pankrea transplantatzeko premia larria dauka. Bigarrenak suizidatzeko asmoa dauka hemendik urtebetera, herentzia jaso duen Alzheimerre saihesteko. Hirugarrenak proposamen bat egingo dio bigarrenari: suizidioaren epea aurreratzea, lehenengoari bere pankrea emateko. Hemendik aurrera ezustekoek, tragediak eta umoreak bat egingo dute.

“Gaur egungo istorio bat da” azaldu digu Patxo Telleriak. “Lehenengo istorioa sortu zen, eta gero bertsoz idatzeko ideia etorri zen. Aspaldiko asmoa zen, neure buruari galdetzen bainion zergatik ez zen bertsoz idatzitako antzerkirik euskaraz; izan ere, bai baitago gure inguruko hizkuntzetan”. Espainia-



ko Urrezko Mendea, Ingalaterrako antzerki isabeldarra edota Frantziako Barrokoan antzerkia bertsoz egiten zelarik, Euskal Herrian modu horretan idatzitako antzezlan bakarra dago, XVIII. mendeko Barrutiarren *Gabonetako Ikuskizuna*. “Garaio-tan apenas zegoen euskarazko antzerkirik. Ikusleriak ez du inoiz euskaraz hitz neurtuz eta errimaz idatzitako antzezlanik ikusteko aukera izan”.

Bertsoz idatzi du Patxo Telleriak testua, baina horrek, astuna izatetik urrun, nabardura eta espresioa eman dio antzezlanari, tragediari dagokionean honen indarra areagotuz, eta umoreari dagokionean irri urduriak eraginez, herioa ez baitzen txantxetan hartzekoa, Tartean Teatroko lagunak heldu arte. Umore kutsukoa bada ere, antzezlanak aurrera egin ahala, honen kutsu tragikoa nabariagoa izango da. “Istorioaz ohartzen bazara, benetako drama da. Abiapuntu drama da eta drama unak badaude ezinbestean. Heriotzari buruz ari gara, fribolitatean erori gabe. Baina egoerak ere badau-

ka bere umorea. Istorioa giro eta ustekabez beteta dago” azaldu digu Tartean Teatroko kideak.

Pankreas antzezlanak “ez dauka zerikusik bertsolaritzarekin, ez baita bertso abestua” dio Patxok. “Naturaltasunez hitz egiten saiatu gara. Bertsoaren tempo ikasi eta gero desikasi egin dugu horretarako. Bertsoari artifizialtasun hori kentzeko,

ez dadila geratu errezitazio baten antzera. Horrela gertatuz gero, aspergarria suertatuko litzateke, eta publikoa antzezlanetik deskonektatuko luke. Gure helburua da, hasiera batean publikoa harrituko bada ere, une batean ahaztea bertsoz hitz egiten ari garela”.

Hitz neurtuak izaera berezia ematen dio antzezlanari, hitz neurtu honen baitan antzerki gehiago aurkituko balute bezala, eta hari ikusezin bati jarraituz ibiliko dira antzezleak. “Bertsoa artifizio bat da, tresna estetiko bat. Ondo erabilita, eta batez ere, ondo esanda badago, gehigarri estetiko bat da, testuari dotorezia ematen dio, gainbalioa”. Publikoari ez zaio alde horretatik arreta berezirik eskatzen, Patxo Telleriak dioenez, “ez behintzat, beste edozein antzezlanek eskatzen duena baino gehiago. Gure asmoa publikoarengana erraz iristea da. Ez da nekoso, istorioa jarraitzea erosoa izatea nahiko genuke”. ■

Myriam Garzia



Uso mezulariak milioi bat ekarri zion Rothschildi

WOLFGANG SAUBER



Ezkerrean, britainiarrek Frantziako tropak erasotzen, Waterlooko gudua azken fasean (1815). Eskuinean, Nathan M. Rothschild (1777-1836), gudua emaitzaren berri inork baino lehen jakitea ederki baliatu zuen bankaria.

WATERLOO (EGUNGO BELGIKA), 1815EKO EKAINAREN 18A. Igande hartan Wellingtongo Dukeak eta Gebhard von Blücherrek zuzentzen zuten Zazpigarren Koalizioak Napoleone Bonaparte buru zuen frantziar armada mendean hartu zuen.

Finantzari britainiarrek bazekiten gudu-zelaian asko zegoela jokoan, ez soilik politikaren aldetik, baita ekonomia-eraketatik ere. Emaitzak arazo larriak ekarriko zizkien herrialde askori; beste batzuei, aldiz, bidea berdinduko zien. Britainia Handia guduan zuzenean nahasita zegoen, eta emaitzak britainiar bonuak izugarri igotzea ala behea jotzea eragingo zuen. Bide batez, gudua dirutza ekar ziezaiokeen emaitzaren berri beste inork baino lehenago lortzen zuenari.

Nathan Mayer Rothschild (1777-1836), Rothschildeko lehen baroia, bankari dinastia ezaguneko bigarren belaunaldiko kidea zen. Frankfurtur jaio arren, Ingalaterran hasi zen negozioak egiten. 21 urte zituela Manchesterreko ehungintzan inbertitzen hasi zen. 1809an urrearen merkatuan sartu zen, eta 1815erako haren negozioak Europa osoan hedatuta zeuden. Nolabaiteko inteligentzia zerbitzu pribatua osatua zuen, hainbat agentez eta mezulariz osatutako sareari esker. Uso mezulariak ere zerbitzu haren parte ziren.

1811tik aurrera Rothschildek Wellingtonen agindupean zeuden tropak finantzatu zituen, Iberiar penintsulan Napoleonen aurka egin zituzten kanpainetan –1813ko abuztuaren 31ko Donostiako sarraskiaren erantzukizunaren zatitxo bat bankariari egozteaz zilegi litzateke, beraz—. Hala, ingeles tropek ez zieten inolako oztoporik jarri ongilearen trikimailuei. Haren zerbitzuko uso mezularietako bat gudu-zelaira bidali zuen, gudua emaitza jakin bezain pronto mezua baroiari eraman ziezaiola, baita hegaztiak misioa ederki bete ere.

Europako finantzari nagusien artean, Rothschild izan zen lehena Waterlooko gudua emaitza jakiten. Frantziak galdu zuela jakitun, bere esku zeuden britainiar bonuak saltzen hasi zen. Gainerako bankariek ondorioztatu zuten Frantziak gudua irabazi zuelako hasi zela Rothschild bonuak saltzen, eta berehala gauza bera egiten hasi ziren. Bonuen prezioa nahikoa jaitsi zenean, Rothschild, benetako informazioa erabiliz, bonu merketuak erosten hasi zen. Frantziaren porrotaren berri zabaldu eta berehala, bonuak izugarri garestitu ziren. Operazio amarrutsu soil horretan milioi bat libera esterlina inguru irabazi zituen baroiak. ■



Arrastoak

Zorionak, uso batek kaka egin dizu

USO BATEK gainean kaka egi-teak zorte ona omen dakar –ziurrenik, Rothschildi uso hark ekarri zionaren parekorik ez—. Sineskizunaren jatorriaren bila K.o 236. urteraino egin behar da atzera.

Maximino Trazio enperadoreak kristauen aurkako zapalkuntza gogortu zuen eta, Antero Aita Santua martiritzatuta hilarazi zuenean, kristau komunitateak haren ondorengo aukeratzeko bildu behar izan zuen. Ia beti bezala, hainbat korronteren arteko eztabaida piztu zen, baina hautagai garbirik ez zegoen. Une horretan, lanetik zetorren nekazari bat zertan ari ziren ikustera hurbildu zen. Bat-batean, uso batek Fabian izeneko nekazariari gainean kaka egin omen zion, eta bildutakoek Espiritu Santuaren seinaleztat jo zuten. Fabian laikoa zenez, hantxe bertan apaiz, gotzain eta Aita Santu ordenatu zuten, beti ere Zesareako Eusebio historialariak *Historia Ecclesiae* lanean dioenaren arabera. Fabian 250eko urtarilaren 20an hil zen arte egon zen karguan. ■



ANNE CLAY

Antzuak eta gure haginak

LANDARE BAT, edozein. Hazitik ernatu, zaina, zortena, hostoa, hazi, heldu, erresalbuak metatu, loratu eta fruitua ekarri. Egun gutxi batzuetan –letxuga batek, adibidez, ehunen bat egunetan– edo ehunka urtetan osa daitekeen bidea. Fruitua ez da landarearen helburua. Fruituak haziak darabmatza, eta hazi horiek sakabanatu eta, gehienetan, asko uste gabe, ereingo dituen erakarri eta saritzeko trikimailu soila da. Sagarrondoak ez ditu sagarrak ematen guk munduko sagardo onena edan dezagun, bere haziak hedatzeko baizik.

Eta hazirik gabeko fruituak? Nola arraio uler daiteke landare batek hazirik ez duen fruitua ematea? Loreak sortu eta zabaldu, fruitua hazi eta heldu... Ikaragarritzko energia erre, alferrik? Landareak bere kabuz urrats hori egitea ez da batere ohikoa, ez du antzutasunerantz eboluzionatuko. Noizbehinka, mutazioen bat dela tarteko, aldaera antzu bat naturalki sor daiteke. Gehienetan, ordea, geuk eragindako aldrebeskeria da fruitu xelege horiena.

Hazirik gabeko fruitu antzuak kultura askoren aspaldiko amets izan dira: fruitu “garbiak”, dena jatekoa duten horietakoak. Mahaspatarako mahatsondoarena adibide ezaguna da. Korintokoak eta Sultana mahaspasak hazirik gabekoak dira. *Vitis vinifera Sultanina*, afganistandar jatorria duen bigarren aldaera horretakoa da egun ekoizten den mahasparen %95. Haziaren premiarik ez du. Ederki zabaldu dugu, hagin tartean kateatzen diren pikor gogaikarri horiek ez izatearen

ordainetan, hain zuzen ere. Arabak eta Nafarroa Beheak hartzen dituzten adinako lur sailak lantzen dira mahatsondo horrekin. Munduko mahats hedatuena da.

***Vitis vinifera Sultanina* aldaeraren mahatsa, egun ekoizten den mahasparen %95en jatorria.**

ez lorerik emango. Adaxka bidez ugaltzen ditugu, eta ez dute energia hori zertan gastatu... Eta fruiturik emango ez dute-nez, ez ditugu nahiko, zaputaz abandonatuko ditugu, eta hortxe bukatuko dira. ■



SHMUEL BROWNS

Bakarra

BAKARRA DA GURBITZONDOA, *Arbutus unedo*. *Arbutus*-ek latinez zuhaixka dio eta *unedo*-k bakarra. Fruitua, gurbitza, bakarra jan behar dela esan nahi omen du. Udazkenaren bihotzean heltzen da, gorri. Euskaraz izen mordoia du, fruitu arbola gutxi adina. *Borrachín* deitzen diote Asturiasen, heldutakoan alkohola baitu. Burua pittin bat txoratzen duenez, animalioek oso gogoko dugu: hartza, basurde, azeri, garraztarro, zozo, birigarro, araba-zozo... Madrilen hartza eta gurbitza uztartzen dituzte, itxuraz alkoholagatik omen da zalea, baina kalparra osasuntsu mantentzeko ona omen da. Adi burusoilgaiak! ■



GEOFF LANE-CC BY SA



- Lorezaintza proiektuak
- Mantentze zerbitzua
- Landare iraunkorren erabilpena eta salmenta:

• Ezagutu eta aukera ezazu Urbina Garden-en.
Legutio ☎ 945 40 34 23

☎ 609 42 45 47 • lorelan@euskalnet.net



KOMANDO AUTONOMOAK

Askatasun utopikorantz, zurrunbiloan ito zen borroka

1984ko martxoaren 22an, Dionisio Arbelaiz Kurro, Pedro Isart Pelitxo, Rafael Delas Aizkorbe Txapas eta Joseba Izura Pelu Komando Autonomoetako militanteak hil zituen Espainiako poliziak, Pasaia badiaren. Aurrez prestaturiko segada izan zen hura, ZEN Planak ahalbidetutako estatu krimena. Bizpahiru egun lehenago abiatu zen operazioa, Rosa Jimeno bahitu zutenean, torturatu, komando kideak deitzera behartu eta amu gisa erabili baitzuten.

30. urteurrenak Kapitalismoaren Kontrako Komando Autonomoak zer izan ziren gogoratzeko aitzakia eman digu. XX. mende hasierako anarkisten oihartzun urruna ekarri digute. Haien printzipioen zipriztinak igarri ditugu M15 bezalako mugimenduetan.

| GARBINE UBEDA GOIKOETXEA |

MUGIMENDU AUTONOMOA 60ko hamarkadan ernaldtu zen, kapitalaren eta lanaren arteko talkatik, eta Francoren garapen planak akuilatu-ta. Fabrika handietako gatazketan aurkitu zituen lehen habiak, eta protestaldi haiei loturik, migrazioa hartzeko sortutako poligono urbano masifikatueta. Esplotazioak, pila-

ketak, baldintza kaxkarrek edo prekarietateak, alabaina, elkarrekin antolatzeke esperientzia berriak ahalbidetu zituzten. Nagusiki, langile asanbladetan oinarritutako ekinbideak (erakunde politiko eta sindikaletatik libre ziren zentzuan, autonomo deituak). Ezeren gainerik, langileria ordezkatzeko forma

burokratikoek erakutsi zizkieten hortzak, eta antolaketa kolektiboe-tarako borondatea agertu zuten.

Apurka, fabrikak gainditu eta lan mundutik kanpoko esparru soziale-tara hedatu zen mugimendua: auzo, gazte, emakume, langabetu, guraso edota jubilatuen asanbladak sortu ziren, borroka espazio ugari. Franko hil osteko lehen bi urteetan izan zuten zenita. Alimaleko debateak harilkatu zituzten, botereak ezarri-riko eredu moral eta etikoen kontrako pentsamendu kritikoak estruktura-tu, errespetua eta elkartasuna habe-tzat hartuta. Gaurko abantailak, lanekoak izan edo sozialak izan, praktika haien fruitu dira neurri handi batean, berorien merituak sarritan politikariek eta sindikatuek haienganatu izan dituzten arren.

Han eta hemen eratutako talde sozial mordoak bateratu beharra sortu zen apurka, borroka eskual-deka antolatzeke, eta halaber, eskualdeak koordinatzeko, alderdi eta sindikatuekiko autonomia pre-misatzat hartuta betiere. Halaxe sortu ziren Koordinadora Autono-moak.

Francoren diktadura amaiturik, eta trantsiziara bidean, 1977ko hau-teskundeak bukaerarik gabeko ezta-



1976ko martxoaren 3a, Gasteiz. Greba orokorra zela eta, milaka langile bildu ziren San Frantzisko elizan, Zaramaga auzoan. Poliziak eliza ingurua hesitu eta gogor erreprimitu zituen asanbladan bildutakoak. Bost lagun hil zituen.



Ezkerretik eskuinera, Rafael Delas Aizkorbe Txapas, Joseba Izura Pelu, Dionisio Arbelaitz Kurro eta Jose Maria Isart Pelitxo. Bi iruindar eta bi azpeitiar, hurrenez hurren. Joseba Merino bizirik irten zuen komando kide bakarraren esanetan, segadan ezustean harrapatu eta "fusilatu" egin zituzten. Apenas eginbiderik zabaldu gabe itxi zuten Pasaiaiko gertaeren sumarioa. Lekuko bakarraren deklarazioak desagertu egin ziren. Ez zen balistika txostenik egin eta ustezko frogak ez ziren batu (Zodiak itsasontzia, balak...). Inon ez zen operazioko arduradunik ez exekutatzailerik agertu.

baida ekidinezin bilakatu ziren asanblada bateratu haietan. Askotxori klase nagusia betikotzeko artea besterik ez zirela iruditzen zitzairen, asanblada ereduak bazter utzi beharra eta langileriak kapitalismoaren kontra abiatutako matxinadari uko egitea ekarriko zutela. Demokrazia zuzen eta parte-hartzailea aldarrikatu zuten. Estrategia abertzale-iraultzaileak KAS alternatiba aurkeztu zuenean ere, errefusatu egin zuten, eta demokrazia burgesaren partetzat jo, batik bat, abangoardia politiko gisa proposatzen zelako, eta Euskal Herriaren burujabetza mailakatua eta etapaka negoziatua planteatzen zuelako. Eta haiek, inolako abangoardiarik eta boterearekiko truke edo konpromisorik onartzen ez.

Aginpide oro kritikatu zuten autonomoek, bereziki joera marxista-leninistak —garai hartan sigla festa ikaragarria zegoen korrante hauen inguruan—, haien ustez norbanakoa ezeztatzen zutelako, gidaritzaren izenean. Troskismoa, leninismoa, maoismoa, sozialismoa,

anarkismoa... zaku berean sartu zituzten denak, botere estruktura ortodoxoak zirelako haien ustetan. Ez zuten inongo ideologiatan hesitu nahi, asanbladetan eta eguneroko askatasunean ez bazen. Asmoak


Borondate kolektiboari errespetua eta ekintzarako askatasuna izan ziren autonomoen kredoko puntu ia bakarrak. Taldeak ez ziren ideologikoki estrukturatu, ezta parametro bertsuetan definitu ere

asmo, ordea, erreferentziarik izan zuen mugimendu autonomoak, nagusiki anarkismoa eta batzorde-komunismoa. Alderdi eta sindikatu bidezko demokrazia gaitzetsi zuten, eta zentzu horretan, hauteskundeak delegatzeko modua besterik ez ziren. Irakaspen estruktural (eskola, moralak, hedabideak), berriz, gizakia hutseratzeko tresnak. Demokrazia zuzena jo zuten klase independentzia lortzeko bide bakartzat eta internazionalista gisa definitu ziren, estatu mugei zentzu-

rik ikusten ez zitelako. Estatu kontzeptuari uko egin beharra, ordea, sekula amaitu ez zen eztabaida izan zen haien artean, herriak bere patua erabakitzeke eskubidean ere sinesten zutelako aldi berean.

Teoria praktikara eramateko ahaleginean, aldizkariak plazaratu zituzten, eta komunak edo antzeko esperientziak bideratu. Poliziak gogor errepresatu zituen denak.

1977ko hauteskundeen osteko erreformak atzeraldia ekarri zion klase autonomia-rik abiatutako "iraultza prozesuari", alderdi eta sindikatuen legeztatzeak asanbladen moteltzea eragin baitzuen. Konpromiso ideologikoa harago eramanez nahi izan zutenek borroka armatuaren gaia mahairatu zuten eztabaidetan, eta urte hartan bertan, Talde Armatuaren Koordinakundea eratu zen. Zenbait korrante politikotan jardundako kideek osatu zituzten taldeak, tartean LAIA-ez zeritzon sektoretik zetozenak —1974an ETako hainbat militante erakundea utzi eta LAIA alderdi leninista



Ezker abertzaletik korrante autonomoetara hurbildu zirenen organigrama.


klasikoa sortu zuten. Gerora bitan banatu zen Langile Abertzale Iraultzaileen Alderdia. LAIA-bai korranteak KASekin bat egiteko hautua egin zuen eta LAIA-ez korranteak ez zuen horrelakorik onartu—. OKA erakundetik ere hurbildu ziren, eta Komando Bereziatik —ETApM-ko adar armatua. Buruzagitza politikoiari behin-behineko gobernu espainolarekin isilka negoziatu izana leporatu zioten erakundea desagin zutenean—. Azken hauek, hain zuzen, esperientzia armatua ekarri zuten erakunde berrira.

Komando Autonomoen hastapenetako ekintzak sinpleak izan ziren, talde bakoitzaren ahalmenaren arabera, eta protagonismo mediatikorik nahi ez zutenak bere

horretan. Teorian bederen, borroka armatua behetik gora egin behar zelako. Zentralismotik ihesi, izen adierazgarriak ipini zizkieten taldeei; data, pertsona edo gertaera jakin bati lotuak, sarritan. Esate baterako, Kapitalismoaren Kontrako Martxoak 3 Komando Autonomoa.

Lehen erreibindikazioa 1978ko urtarrilean egin zuten, Errenteriko Paisa fabrika zaharrean lehergailua jarri ostean, orubea birkalifikatu eta etxeak egiteko plana zegoela-eta. Poligonoetako masifikazioaren eta bizi-baldintza kaxkarren kontra altxatua zen ordurako, herriko asanblada. Handik aurrera, lelo bat eta bera paratzen hasi ziren komunikatuetan: “Borroka armatua herri borroka da”.

Jose Miguel Etxeberria
Naparra ETA pm-ko Komando Bereziatan aritu zen, harik eta bere burua Komando Autonomoetan egokiago ikusi zuen arte. 1980ko ekainaren 11n desagertu zen. Batallón Vasco Español talde paramilitarrak erreibindikatu zuen haren heriotza. *Pertur* ETA pm-ko militantearen kasuan bezala, *Naparraren* gorpurik ez da oraino agertu.



Bi joera nagusi, aburu ugari

Esan liteke borondate kolektiboari errespetua eta ekintzarako askatasuna izan zirela haien kredoko puntu ia bakarrak. Taldeak ez ziren ideologikoki estrukturatu, ezta parametro bertsutan definitu ere. Bi joera nagusitan banatu ziren sortze bereetik: asanbladetatik abiatu zirenak batetik, eta Komando Bereziatik edo planteamendu marxistetatik heldu zirenak bestetik. 80ko hamarkadan, fabriketako borrokek protagonismoa galdu zuten pitaka, eta arazo sozialen gaineko aldarrikapenek hartu garrantzia: antimilitarismoak, ekologiak, hirigintzak... Etapa honetan kide berriak gehitu zitzaizkien, gazteak oro har, trantsizioko urteak politikoki bizi izan ez zituztenak. Hala, dibertsifikazio ideologikoak beste maila bat egin zuen gora.

Aniztasun hori, ordea, aho biko ezpata bilakatu zitzairen. Koordinakundeak ez zuen bi ikuspegiarte aldea koherentziaz batzeko balio izan, eta are gutxiago, borroka armatuak berak hastapenetatik sortzen zizkien tirabirak argitzeko ere. Inoiz ez zuten eztabaida bukatutzat eman.

Errepresioak gogor jo zuenean, esan nahi baita ZEN plana, GAL, funts erreserbatuetatik bideratutako dirutzak, bi estatuen arteko kolaborazioa eta suntsiketarako makinaria osoa batera martxan jarri zenean, borroka antiterrorista deiturikoaren sustatzaileak jarri zituzten jo mugan: poliziak, kuartelak, konfidenteak, politikariak, Euskal Herriaren askapenaren kontrako jarduna babestuko zuen oro. Antolamendua eta logistika aldatzera eraman zituen horrek, dinamika militarragoetara, hain gogor errefusatutako ektura armatu elitistaren kontzeptura, eta, finean, haien lehen printzipioetatik aldentzera. Izen bereizgarriak alde batera utzi eta sigla berberak hartu zituzten taldeek, ekintza guztiak erreibindikatzeko. Komando Autonomoak izango ziren aurrerantzean. Erabakia ez zen aurrez eztabaidatukoaren ondorio izan, barne analisi faltak ez ziren abagunerik sortu nora zihoazen baloratzeko. Indarkeriaren zurrunbiloan harrapatuta zeuden.

Zenbait autonomok begi onez

ikusten zituzten ENAM Euskal Nazio Askapenerako Mugimendua-ren baitako alderdi eta sindikatuak, bateragarriak iruditzen baitzitzaizkien KAS eta auto-eraketa edo asanbladen ikuspegia. Beste askotxori, berriz, egundoko kontraesana piztuzien estrategia berriak, bai klase borrokako planteamenduei uko egitea zekarrelako, baina baita haiekin beligerante zirenei –ETAk borroka armatuaren parasitotzat jo zituen Komando Autonomoak– elkartasuna erakusteko ekintzak zirelako.

Komando Autonomoen praktika

Banku eta aurrezki-kutxetan egindako lapurretak izan zituzten diru-iturri nagusia, baita bahiketaren bat edo beste ere, Francisco Limousin enpresariarena (1982) edo Jesus Guilbert Marcial, Usin SA enpresako jabe eta EAJko militantearena, kasu.

Komando Autonomoek hildako lehena Salgueiro kaboa izan zen, 1978ko abuztuan, Arrasaten, Guardia Zibileko informazio zerbitzuetan ziharduelako. Urte eta toki berean, Polizia munizipaleko burua tirokatu zuten, Zapa eta Roberto militanteen hilketa gertatu eta hila-betera. Antzeko arrazoiengatik hil zuten Elgoibarko inspektorea eta Amancio Barreiro taxilari eta polizia-konfidentea ere, Usurbilen. Herri horretan, pare bat urte geroago, Moulinex enpresako produkzio buruarengana jo zuten, lantegiko emakumeen kontra aritzeagatik. Nafarroan, Alberto Toca eskuin mutur instituzionaleko kide eta informazio zerbitzuetako koordinatzaileari egokitu zitzaion patu bera. Efe agentziari informazioa manipu-



1984ko hasieran, gerra zikinaren erantzule politikoak jomugan jartzea erabaki zuen autonomo talde batek. Garai hartan "PSOE=GAL" bezalako kontsignez josita ikusten ziren kaleetako hormak. 1984ko otsailaren 23an, Eusko Legebiltzarrerako hauteskunde bezperaren bezperan, Enrique Casas Vila PSEko idazkaria eta Euskadiko Segurtasun Batzordeko arduraduna hil zuten Donostian. Atentatuak Komando Autonomoen akabera politikoa ekarri zuen.

latzeagatik egin zioten eraso, eta Oiartzungo Mitxelín enpresari, hango langileen protestaldiekin bat egiteko. Bilbo-Behobia autopista doakoa izan zedin aldarrikatzeko, Zumaia-ko ordain-tokia lehertu zuten 1983an. Lan eta Hezkuntza Ordezkaritzetan ere izan zen bonbarik, eta Iruñeko Correos posta-bulegoan (bi polizia hil ziren), PSOEko egoitzetan, Lasarte-Orian eta Hernanin (alderdi sozialistak GALen zuten erantzukizuna salatzeke); auto kontzesionario frantsesetan (euskal

errefuxiatuen kontrako estradizio politika zela-eta)... Eta denetan sonatuena, Enrique Casas PSEko antolaketa idazkari, Euskadiko Segurtasun Batzordeko kide eta Felipe Gonzalezen lagun-minaren hilketa, HBren inguruak gogor arbuia zuena –gerra zikinaren partetzat jo zuen, prozesu iraultzailea apurtzeko botereak jarritako tresnatzat, laster izango ziren hauteskundeak gogoa eta gobernu sozialistari menderakurako txinparta agudo atera ziona. Hilabete eskasean Pasaia-ko segada ekarri zuen bueltan.

Hura gertatu zenerako aski eskastuta zeuden autonomoen indarrak. Urte erdi lehenago, eszisia gertatu zen luzaroan debate faltan diferentziak handitzen eta pilatzen joan zirenen artean. Bestalde, bizirik edo libre zeuden militante apurrek borroka armatua utzia zuten halabeharrez, eta nahikoa lan zuten klandestinitatearen zama eramaten eta polizia saihesten. Gainera, estradizioak, deportazioak...

Elkarren artean konponezinik, oinarri sozialik gabe ia, ENAMekoek ezkerreko begiz jota zituztela, eta, Casas hilez geroztik, politikoki hutseratuak, unerik makurrenean heldu zen Komando Autonomoen kontrako kolperik latzena: Dionisio Arbelaiz Kurro, Jose Maria Isart Pelitxo, Rafael Delas Aizkorbe Txapas eta Jose Maria Izura Pelu-ren hilketa, Pasaian.

Amorrut, minez, odolez eta malloz jositako akaberaren atarikoa izan hura. 1985ean egin zituzten azken ekintzak, dirua lortzeko gehien bat. ■



Zerk *rulatzen* du Euskadiko hiriburuan?

Lehenik industrializazioak eta ondoren Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu izendatzeak Gasteiz erabat moldatu zuten. Estatus berriari erantzuna eman ahal izateko, nekazaritza eta industria hiri izatetik zerbitzuetan oinarritutako hiri izatera igaro zen. Sektore publikoak erkidegoko beste hirietan baino indar handiagoa du orain.

| MARTIN VICIOSO |



ALEX LARRETXI

XX. MENDEAN, Hego Euskal Herri osoan bezala, Gasteizko egitura sozioekonomikoa nabarmen aldatu zen. 1950 bitartean, lehen sektorean eta industria tradizionalan oinarritzen zen ekonomia gasteiztarra, eta Arabatik Gipuzkoa eta Bizkairako migrazioa gero eta arruntagoa zen. Industrializazioak batetik, eta Euskal Autonomia Erkidegoko hiriburu izendatzeak bestetik, egoera guztiz aldatu zuten. Kontuan hartu behar da Gasteizek, Bizkaiko eta Gipuzkoako sare industrialetatik gertu egoiteaz gain, eraikitzeko lur mordo zuela. Hala, Euskal Herriko beste hiriburuak baino populazio igoera handiagoa izan zuen proportzioan. Izan ere, 30 urtetan Gasteizen bizi zen jende kopurua laukoiztu zen ia: 52.206koa zen 1950ean eta 192.773koa 1980an, Espainiako Estatuko Estatistika Institutuaren arabera.

Gerora, Eusko Autonomia Erkidegoko hiriburu izendatu zuten, eta eratu berri zen Eusko Jaurlaritzaren azpiegitura mordo Arabako hiriburuan kokatu zen. Halaber, izendapenaren ondorioz hiriaren urbanizazioa eta hedapena areagotu zituzten, eta horiekin batera hirugarren sektorearen gorakada etorri zen. Kulturarekin, hezkuntzarekin eta administrazioarekin lotutako zerbitzuak behar ziren biztanleriaren gorakadari eta EAEko kudeaketa gune nagusi bihurtzeari erantzuna eman ahal izateko. Gipuzkoan eta Bizkaian ez bezala, Arabako bilakaera sozioekonomikoa hiriburuan fokatu zen batez ere eta, hortaz, Gasteizek herrialde osorako zerbitzuak eskaini behar zituen.

Beraz, 30 urteren bueltan hiru fase igaro zituen Gasteizek: lehena, nekazaritza eta betiko industria nagusi zen garaia XX. mendeko lehen erdian, industrializazioarena gero, eta Eusko

Autonomia Erkidegoko hiriburuarena azkenik. 2008ko datuen arabera, Gasteizko Balio Erantsi Gordina honakoa da: zerbitzuak %63,73, industria %26,68, eraikuntza %9,44 eta nekazaritza eta abeltzaintza %0,14. Halaber, establezimendu kopuruaren %80 zerbitzuei dagokie.

Urteotako krisialdiak industriari erasan dio batez ere. Enpresa enblematiko ugari itxi behar izan dute 2008tik hona. Azkenekoa Cegasa. Lehendik ere arazo ugari zituen pila sortzaileak hartzekodunen konkurtsoa aurkeztu du joan den astean.

Hiriburu izatearen ondorioak

Capital artificial de un país singular... zioen Potatoren abestiak 80ko hamarkadan. Gasteiz Eusko Jaurlaritzaren eta Legebiltzarraren egoitza bihurtzearen erabakiak eztabaida piztu zuen garai batean, baina noizean behin gaurkotasunera ekartzen

Erradiografia

Biztanleak: 242.147 (2013)

Sektorekako ustiapenak: Lehen sektorea: %0,4. Eraikuntza %9,44. Industria %26,68. Zerbitzuak %63,73'6 (2008)

Langabezia tasa: %14,8 (2013)

Administrazio publikoko langileak: 7.452, kopuru osoaren %7,55 (2011)

Biztanleria dentsitatea: 873,82 perts. / km²

Udalaren osaera: Alderdi Popularra (PP): 9. Eusko Alderdi Jeltzalea (EAJ): 6. Euskadiko Alderdi Sozialista (PSE-EE): 6. Bildu: 6.

Euskararen ezagutza tasa: %24,32.

Iturria: Gaindegia.



den gaia baldin bada ere, EAEko hiriburua dela naturaltasunez onartu da. Hala ere, ukaezina da erabakiak hiriaren bilakaera moldatu zuela eta gaur egungo Gasteiz nekez uler daitekeela erkidegoko hiriburu izan gabe. Esan bezala, egitura administratibo osoari egoitza ematen dion azpiegitura osoaren eraikuntza ez ezik, hiriburuaren urbanizazioa eta zerbitzu sarearen osaera ekarri zuen.

Berrikitan, Gasteizko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak akordioa lortu dute "hiriburutartasun kanonaren" inguruan. Jaurlaritzak 2013 eta 2016 artean 20 milioi euro emango dizkio Udalari, hiriburuko oinarritzko hiri-gintza proiektuetan eta zerbitzuetan inbertitu ahal izateko. 30 urte zermatzan udal administrazioak kanona aldarrikatzen.

Hiriburutzak turismoan ere eragina izan duela esan daiteke. Estatusa

bera turismorako erakargarri izan daitekeen arren, azken hamarkadan kongresu eta jardunaldiak lotutako turismoaren gorakada sumatu da. 2002an mota horretako 50.000 bisitari izan zituen Gasteizek, gaur egun 100.000 baino gehiago dira.

Oraindik ez da egin Gasteiz EAEko hiriburu bilakatzearen ondorio sozioekonomikoez taxuzko ikerketarik

Azken urteetan Udalak bultzatutako politikak filosofia horretan sakondu du. 2012an Europako Hiriburu Berde izendatu zuten eta 2014an Espainiako Estatuko Gastronomía Hiriburu. Hiri ekologian oraindik egin daitezkeen aurrerape-

nak albo batera utzita, kanpora begirako errekonozimendu gisa ulertzen dira izendapen horiek. Beste modu batean esanda, balizko bisitarientzako apeu dira.

Euskal Autonomia Erkidegoak 35 urte behar dituen 2014 honetan, oraindik ez da egin Gasteiz Jaurlaritza eta Legebiltzarraren egoitza bilakatzearen eragin sozioekonomikoari buruzko taxuzko ikerketarik. Hala ere, bistan da ondorioak izan dituela eta datuetan horren zantzuak haute-maten dira. Esaterako, administrazio publikoa arlo ekonomiko indartsuagoa da Gasteizen Donostian edo Bilbon baino. 2011n Arabako hiriburuaren langile kopuru osoaren %7,5ek egiten zuen lan sektore publikoan. Bilbon eta Donostian, berriz, %5,95 eta %6,01 hurrenez hurren. ■



KUADRILLA ARTEKOAREN

EGUNAAAAA

APIRILAK 5,

AGURAIN

12:00 POTEOK

15:00 BAZKARIA

17:00 DENOK PUNTUKA

18:00 GIBELURDINEK

20:30 BERTSO-PUNK

ARABAKO BERTSO KUADRILLA ARTEKO

otsailak 18-apirilak 5

argia

www.bertsozale.com/araba

Sarean tertulian jarduteko ohitura errotu da

Irudikatu beheko sua, eta haren inguruan tertulian dabilen lagun kuadrilla. Blogetako komunikazioa horrela definitu du Lucas Aisa blogariak: “Istorio on bat kontatzen duzunean, inguruan denak isil-isilik egoten dira entzuten”. Komunikazio eredu hori berria izatetik ohiko izatera pasatu da Euskal Herrian.

| AMAIA UGALDE BEGOÑA |



AZKUE FUNDAZIOA

Ezkerretik eskuinera, Gorka Bereziartua moderatzailea, Haritz Rodriguez, Maite Goñi, Juanra Madariaga eta aurpegia ikusten ez zaiola Marijo Deogracias.

AZKUE FUNDAZIOAK eta ARGIAK antolatutako *Blogetan! euskal blogarien topaketan* egon da gaia bolo-bolo. Duela urte batzuk izan zuen booma-ren ondoren, blogen fenomeno normalizatuz eta egonkortuz joan da eta gaur egun euskarazko blogosferan aniztasun handia dago. Eskaintza handia izan arren, kontsumo mailan agertu zuten kezka, eta euskarazko internet elikatzen jarraitze-ko premiaz berba egin zuten.

Jardunaldiaren hasieran, Lucas Aisa blogari zaragozarrak konparaketa gastronomikoa egin zuen: Twi-

terra, shushia lakoa da, mokadu baten jateko modukoa, baina batzuetan egiteko gaitza, arroza hain tarte txikian kontzentratzea ez baita samurra. Bloga, txuleta modukoa da: Lagun artean, patxadaz jatekoa, tertulian, eztabaidan, eta jan ostean patxaran batzuk edanez.

Txuleta eta shushia gora-behera, interneten dagoen eduki kantitatea gero eta handiagoa da. Blogak, profesionalak edo pertsonalak, norbanakoenak edo kolektiboak, asko ugaritu dira azken urteotan, munduan, eta Euskal Herrian ere bai.

Euskarazko blogen errealitateari buruz mahai-ingurua egin zuten topaketan. Bilbon izan ziren Haritz Rodriguez kazetaria, Maite Goñi irakaslea, Juanra Madariaga mendizalea eta Marijo Deogracias kazetaria. Laurak dira blogariak, eta Gorka Bereziartua ARGIAko kazetariaren galderei erantzunez, egungo egoeraren argazkia egin zuten.

Difusio barik, alferrik

Maite Goñik oso argi ikusten du: “Gaur egun blogarekin bakarrik ez genuke ezer egingo, bertako edu-

Egiten dakizunaren erakusleioa

BURUSOILA eta bizarduna. *Calvo con barba* da Lucas Aisaren blogaren izena, eta ezizen horrekin sinatzen du interneten idazten duen guztia: “Jende askok ez daki nire benetako izena”. Bloga bere lanaren bizkarrezurra dela azaldu du hitzaldian. Astero artikulua bat idazten du, eta bertatik heltzen dira beragana bezeroak eta proiektu berriak. Curriculum Vitaearekin alderatu du bloga Aisak, digital vitae bezalakoa da bere bloga: “Curriculumean egin dezakezunaz idazten duzu; blogean egiten duzuna benetan dakizula demostratzen zabilta”.

kiak konpartituko ez bagenu”. Twitterrek horretarako bidea errazten du. Maite Goñik hainbat blog dauzka eta tartean *Gaurko Hitza* izeneko. Egunero berba bat hartuta haren inguruko azalpenak ematen ditu. Marijo Deograciasek jarraitu egiten du bloga: “Baina bertara zuzenean sartu barik, haren soka Twitterren hasten da nire kasuan. Inor ez da blogetara joaten irakurtzera, ez bada Twitter bidez heldu”.

Lan arloan, eta kazetaritzan bereziki, ekarpen handia egin dute bloggek. Haritz Rodriguezek argi ikusten du hori: “Aurrekoan gai bati buruzko artikulua ikusi nuen, bere garaian nik paperean idatzitako gai bat zen, beste gabe pasa zena. Orain ikusi dut interneti esker pilo bat mugitu dela. Paperean lehen ez zegoen aukerarik jakiteko, baina orain badakizu, ‘irakurtzen naute!’”. Gorka Bereziartuak ere igarri du ikusgarritasun hori ARGIAN: “Publikoa ikaragarri zabaldu da eta eragin soziala asko hazi dela nabaritu dugu”.

Euskarazko eskaintza eta kontsumoa

Gai askotako hamaika blog daude euskaraz, eta horietako batzuk eza-gutzeko aukera egon zen *Blogetan! topaketan*. Topatu.info ekimenetik Oier Peñagarikano eta Amaia Nicholson izan ziren, Euskal Herriko gazte mugimenduari zuzendutako zerbitzuaren berri ematen. Peñagarikanok denbora eta objektuen berrerabilpenari buruzko bloga dauka Topatu.info, *Itsumustuan* izeneko; Nicholsonek berriz lurra eta buruaskitasunaren inguruan idazten du *Hazitegia* blogean. Topatu proiektuaren barnean beste hamazortzi blog daude. Euren ostean, Iñigo Errastik *31 eskutik* blog kolektiboaren gainean egin zuen berba. Bertan, egunero euskararen inguruko testuak idazten dituzte EIZIEko hainbat kidek. Amaitzeko, Imanol Epeldek *Etsepare Rap* bloga aurkeztu zuen, rap estiloan aurkeztu ere. Euskal literaturaren historia zatiak musika horretara egokitu eta blogean bildu ditu.

“Inor ez da blogetara joaten irakurtzera, ez bada Twitter bidez heldu”

Marijo Deogracias

Euskarazko blogosfera txikia baina aktiboa dela nabarmendu zuen Maite Goñik. “Hasieratik mundu horretan hasi ziren euskaldunek argi eduki zuten edukietan egin behar zela apustua; ez zegoen B aukerarik”. Librezale ekimena eta hark edukiak itzultzen egin duen lana nabarmendu zuen.

Haritz Rodriguezek kezkatuta begiratzen dio egoerari: “Desoreka ikusten dut interneten dagoen eskaintzaren eta kontsumoaren

Lehiaketako irabazleak

Topaketaren amaieran, *Blog izarren bila* euskarazko blogen lehiaketako sariak banatu zituzten. Hauek izan dira irabazleak:


- **Kultura alorrean:** Zineari buruzko *Klak... eta* bloga, Iñaki Gaunarena.
- **Gizarte eta politika alorrean:** *Arma, tiro, klik* Amaia Lekunberriren fotokazetaritza bloga.
- **Aisian:** *Tropela*, txirrindularitza buruzko bloga.
- **Zientzia eta teknologian:** *Euskal natura* UEUren zientzia eta teknologia alorreko bloga.
- **Blogari berriaren saria:** *Ikusi makusi... zer ikusi* ikus-entzunezkoen gainera Gaizka Izagirreraren bloga.

artean; sortzaile asko daude, baina kontsumitu, ez da horrenbeste egiten euskaraz”. Beste hizkuntza handiagoen eskaintza oso zabala dela nabarmendu zuten, eta konpetentzia ez dela erraza. Horren haritik, kontsumitzaileek gura dutenari buruzko ikerketak sumatzen ditu faltan Maite Goñik. Juanra Madaariagak baikor ikusten du egoera: “Euskara ez da atrofiatuta geratu. Uholdeari erantzuten jakin du, eta gainera oso maila onean”.

Mahai-inguruan, kontsumitzaile onena sortzaile berria dela ondorioztatu zuten. Maite Goñi irakasleak jakintza ikastolan argi ikusi du. Ikasleek edukiz betetzen duten bloga du esperientzia: “Hezkuntza munduan gazteak edukiak sortzen ipiniz gero, errazago jarraituko dute bidea. Ohitu egingo dira dinamika eta kultura horretara”.



Babeslea: Bilboko Udala



Rajoy gorritu dutenak mintzo

Martxoaren 8an Euskadiko PPk Kongresua egin zuen Donostiako Kursaaletan. Lau feministak Kongresura sartu eta eskuak zein aurpegiak gorritz margotuta, Espainiako presidentearen hitzaldia etetea lortu zuten, "Aborto ilegal, violencia estatal" eta "Gure gorputza, gure erabakia" oihuekin. Irudi horiek Hego Euskal Herriko eta Espainiako komunikabide nagusietan zabaldu ziren. "Rajoy Euskal Herritik pasa da baina ez da hain garbi joan", harro kontatu digute Jone Arrazola Maiztegi, Olaia Auzmendi Sarasa eta Maria Ajuria Hernandez ekintzaileek (argazkian ezkerretik eskuinera).

| ESTITXU EIZAGIRRE KEREJETA |



LANDER ARBELAITZ MITXELENA

Zuen ekintza positibo interpretatu da gizartean eta komunikabideetan. Zein izan dira arrakastaren gakoak?

Maria Ajuria: Mugimendu feministak lan handia egin du abortuaren aldeko argudio guztiak erakusteko, sozializatzeko. Arrazoi guztiak kalean daude eta argumentatu dira. Beraz, ekintza oso erraza izan da ulertzeko. Mezu oso argia zuen, oso ikusgarria eta baketsua. Indarkeriatzat ulertu zitekeen edozein keinu egin bagenu, gure kontra erabiliko zen.

Jone Arrazola: Hasieratik oso argi genuen inongo indarkeriarik ez erabiltzea. Ateratzera etorri zirenean ez genuen inongo erresistentziarik jarri. Gure funtzioa bakarra zen: presidentearen aurrean oihu egitea.

M. Ajuria: Hedabideetan gutaz esan da "jo, zer ausartak!". Mutilak izan bagina ez zen halakorik esango. Askok azpimarratu dute "ziur beldurra pasa dutela". Urduri egon ginen baina beldurrik ez genuen pasa. Emakumeak indar erakustaldi bat egiten ikusten direnean ausardia

eta beldurra, horiek azpimarratzen dira.

J. Arrazola: Ausardia aitortzen zaigu baina puntuala, ez zaigulako rol hori atxikitzen.

Abortuaren inguruan antolatzeke gaitasun handia erakutsi du mugimendu feministak.

M. Ajuria: Lege horrek espero ez genuen puntura garamatza, oso atzera. Bai, abortuaren borroka mugimendu feminista eta gizartearen zati handi bat asko batu du, baina horren atzean beste gauza askoren kontra ari den borroka feminista dago. Adibidez, Rajoyren gobernuak eta baita Eusko Jaurlaritzak ere onartu dituen murrizketak, menpekotasun legea kentzea, LOMCE... lege askoren helburua da emakumea etxeko rolean, ama-emazte rolean iraunaraztea eta sistema patriarkala indartzea. Abortuarena da izebergaren punta baina azpian beste neurri eta lege asko daude.

J. Arrazola: Eta ideologia oso bat, eta estatu politika bat, zuzenki eliza katolikoaz blaitua dagoena. Herritarrek ez dute Abortuaren Legea babesten, gobernuak duen babes bakarra Elizarena da. Emakumeak bere gorputzarekiko erabakitzeke eskubiderik ez izateak esan nahi du ez gaituztela pertsona osotzat onartzen. Emakumea da pertsona bat aholkularitza profesionala behar


duena. Baina nire gorputza nik ezagutzen dut ondoen. Nik dakit ondoen zer nahi dudan eta zer ez, eta zer den komenigarria nire bizi proiekturako. Nor hobe eta nor jakitsuago ni baino?

Olaia Auzmendi: Mugimendu feminista saretuta zegoen lehendik ere, baina abortuarekin bai lortu dela sare hori biltzea. Badira Abortuaren Eskubideen Aldeko Euskal Herriko plataforma, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako plataformak, eta herrietan ere plataforma desberdinak daude. Abortuaren Legearekin sarea gehiago elkartu da.

J. Arrazola: Feminista helduenengan, ibilbide bat egin dute nengan, pena sentsazioa sumatu dut. Garai bateko aldarri berarekin 2014an kalean egon beharra, ez zuen inork espero. Hein batean indartzeko balio du baina beti zulo berean sartuta, betiko eztabaidetan eta borrokan iraunarazi nahi gaituzte. Feminismoak mila gauza ditu oraindik deskubritzeko eta lantzeko.

Aldarria zaharra da, baina 2014an tresna berriak badira; sare sozialak ederki baliatzen ari da feminismoa, artikulatzeko eta ideiak zabaltzeko.

M. Ajuria: Sare sozialik gabe ekintza honen oihartzuna guztiz bestelakoa litzateke. Oso kontziente ginen horretaz, eta ekintza prestatzerakoan oinarrietako bat hori izan da, zelán kudeatu hedapena. Sare sozialez baliatu gara. Ekintza egin



Ekintza pausoz pauso bideoan eta blogean

Olaia Auzmendi Sarasa, Maria Ajuria Hernandez, Jone Arrazola Maiztegi, eta Rebeka Maestro Watson, ekintzaren une gorenean. Ajuria: "Bagenekien pinturak indarra emango ziola irudiari, gainera lemarekin bat zetorren, emakumearen kontrako indarkeria, odola irudikatzen zuen". Arrazola: "Sinbolo feminista garrantzitsua zen, Espainiako presidentearen aurrean horrelako ekintzarik egitea ez zen posible izango oinarri feministarik eta mugimenduaren babesik gabe". Ekintzaren pauso guztien xehetasunak bideoz eta testuan jaso ditugu Gaitzerdi blogean.



baina beste jende asko aritu da atzean lanean.

Zuen ekintzarekin poztu denari zer esango zenioke?

O. Auzmendi: Beste ekintza batzuek egiteko, mugimendua behar dela une honetan. Lege honi ezin zaio utzi aurrera joaten. Kaña eman behar zaio, eta PP egiten ari den beste lege eta erokeria hauen aurrean zerbait egin beharra dago.

J. Arrazola: Animatzeko horrelako ekintza praktikoak, bisualak eta politak egitera. Gero atzera begiratu eta gogoratzen direnak dira, "zelako ondo" sentitzen duzu. Bilerak ere garrantzitsuak dira baina horrelako ekintzak ere bai.

M. Ajuria: Ekintza zuzena ere borroka molde oso baliagarria da kasu batzuetan. Ederra da emakumeok hor protagonista bihurtzen garenean.

O. Auzmendi: Lehen planoan jartzen gara.

J. Arrazola: Alde guztietatik zoriondu dute feministon mugimendua ekintza honengatik. Eta tamalez borroka feministari

gutxitan aitortzen zaio hori, gauzak ongi egiten direla.

M. Ajuria: Espero dut ez dela azkena izango. Nik jada beste ekintza bat daukat buruan!

J. Arrazola: Apirilaren 5ean manifestazio nazionala egingo da Iruñean. Beste mila deialditara joaten garen bezala, hau ere denon kontua da, gure gorputzetan eragiten du eta herri gisa erantzun behar dugu. ■

genuen lauok juxtu ez gara batere trebeak sare sozialetan. Nahiko bagenu ere gure mugikorrek ez dute bideorik grabatzen, Whatsapp-ik ez daukagu... Garrantzitsua da ikustea norberak zer ekarpen egin ahal dituen. Guk gurea egin dugu eta beste batzuek arduratu dira sare sozialetako lana egiteaz, gurea bezain garrantzitsua dena. Hori ere izan da ekintzaren arrakasta. Guk ipini dugu aurpegia eta gorputza

Erakusketa: 2014-2-8 / 2014-5-25
San Telmo Museoa

GALIARREN ARON

CESAR AURREKO AKITANIA

Bititak eta jarduerak: www.santelmomuseoa.com

STM San Telmo Museoa

Inrap

donostiakultura

ELKARREKIDE

berria

GARA

naiz

sarria

Nafarroako Gobernuaren eraso salatze- manifestaldia martxoaren 22an

EUSKAL KOMUNITATEAK, beste behin, kalera ateratzeko deia egin du. Nafarroako Gobernuak ia ito du euskara sustatzeko edonolako ahalegin pribatu zein publiko. Euskararen aurkako eraso salatuko dute martxoaren 22an Iruñeko kaleetan, *Euskaraz biziz, Nafarroako Gobernuaren eraso egin diezaiegun* lelopean.

Euskal komunitateak agiria plazaratu du, eta ondokoa dio: “Euskaraz aritzen garenok arrotz gisa tratatzen gaitu gobernuak, eta gure lurrean berean desagerrarazi nahi gaitu”. Euskaingintzaren ustez, Nafarroako Gobernuak euskararekiko duen amorrua adibide askotan ikus daiteke: D eredua kakazteko Guardia Zibilaren sasitxostena, elkarbizitzaren aitzakian D ereduko ikastetxeetan funtzionamendua erdaldundu nahia, ETB sare digitalan ikusteko debekua eta euskaltegiak itotzea diru-laguntzarik gabe, besteak beste. Ikastetxeak, euskaltegiak, udalak, hedabideak... esparru



JAGOBIA MANTEROLA / ARGAZKI PRESS

**AEK eta IKako euskaltegiak kideak diru-laguntzarik eza salatze-
elkarretaratzean.**

oro baliatu du Gobernuak euskal hiztunen kontra egiteko. Udal eta mankomunitateei emandako diru-laguntzen bilakabidea adibide bat

baino ez da. 2001etik 2012ra %82 jaitsi dira laguntzak, 860.000 eurotik 131.000 eurora. 2013an diru partida exekutatu ere ez zen egin.

TERMOMETROA • EKONOMIAREN TALAIAN

Duintasuna, genozidio sozialaren kontra

HEGO EUSKAL HERRIKO hainbat tokitan langabeziaren, prekarietatearen eta pobrezia-aren kontrako mobilizazioak izan dira. Herritarren zati handi bat benetako “genozidio soziala” sufritzen ari da. Gehiengo sindikalak eta eragile sozialek deitutako mobilizazio horiek aste honetan izango dute amaiera, hilaren 22an, Madrilén duintasunaren alde egingo den manifestazioan. Ekitaldi horretan bat egingo dute Espainiako Estatuko hainbat tokitatik abiatutako martxek, sindikatu eta gizarte erakunde ugariaren babesarekin.

Hego Euskal Herrian langabezia tasa %17koa da, Europar Batasuneko baina 6 puntu altuagoa. Otsailaren amaieran Hego Euskal Herrian 229.118 pertsona zeuden lanik gabe, batez ere emakumeak eta gazteak. Paroan dauden pertsonen ia erdiak ez du inolako langabezia saririk jasotzen. Prekarietatea gero eta larriagoa da. Kontratu berrien %92,4 denbora baterako baino ez dira. EAEko eta Nafarroako gobernuak prestazio sozialak murrizten segitzen dute. EAEn 157.000 pertsona pobrezia arriskuan daude (biztanle-

riaren %7,2); 100.000 inguruk elikadura arazoak dituzte. Nafarroan 50.000 pertsona daude pobrezia larrian, biztanleriaren %8. Emakumeak dira pobrezia eta prekarietate dinamika zital hori gehien sufritzen duten kolektiboetako bat.

Arrazoiak soberan daude langabeziaren, prekarietatearen eta pobrezia-aren kontrako mobilizaziorako. Euskal gehiengo sindikal eta sozialak aldaketa erabatekoa eskatzen diete gobernuari; alda ditzatela banku eta multinazionalen mesede egiten dieten politikak, “genozidio soziala” sortzen dutenak. Hala, neurri konkretuak eskatu dituzte, prekarietate eta bazterkeria sozialera jaurtitako horiei duintasuna ekarriko dieten eskubideak lortzeko. Etorkizunera begira ez dirudi ezer onik datorrenik, iragarpen ofizialek diotenaren kontrara. Genozidio soziala sakonagoa izan liteke. Ea gure duintasuna hari aurre egiteko adinakoa den!

Juan Mari Arregi





herritarrek

martxan

en marcha



 **Gipuzkoa**
BERRIA



Autobus zerbitzua hobetzeko prozesua

 **Gipuzkoa**
BERRIA

PARTE HARTU

ETA IRABAZI

Parte-hartzaile guztien artean
Mugi/Lurraldebus txartela
kargatzeko 20 euroko bonoak
zotz egingo ditugu.

GIPUZKOAKO AUTOBUS ZERBITZUA HOBETU NAHI DUZU?

56 herritan jasotako ekarpenak kontuan hartuta, autobus zerbitzuaren inguruko proposamena landu dugu. Orain, proposamen hori zure beharretara egokitzen ote den jakin nahi dugu. Etorri eta parte hartu zure herrian egingo den bileran edo egin ekarpena webgunearen bidez: www.garraioahobetzen.net

Zigor ezazue pozoirik nahi ez duen ardogile intsumitu hori

Joan den otsailaren 24an epaitu dute Emmanuel Giboulot mahastizain eta ardogilea Frantziako Dijonen, uko egin diolako bere lurretan zabaltzeari agintariei derrigorrezkotzat jo duten intsektizida. Prokuradoreak hasierako eskaria –sei hilabete espetxean eta 30.000 euroko isuna– 1.000 euroraino jaitsi duen arren, arazoa ez da sendatu.

| PELLO ZUBIRIA KAMINO |

MAHASTIZAIN EGOSKORRA EZ DA bakarrik gelditu justiziaren atzaparretan. Sostengua eman diote Confédération Paysanne sindikatuak –gure ELB horren barne da–, Greenpeacek, Attacek, Slow Food mugimenduak, Europe-Ecologie eta NPA partiduek... Baina epaileen aurrera iritsi bada izan da Cote d'Or departamenduan bakarra izan delako bere mahastondoak *Pyrivert* insektizidaz igurtzeari uko eginen.

Frantziako laborantzan eta oro har ingurumenaz kezka duten herri-tarren artean burrunba puska bat eragin du Emmanuel Gibouloten auziak. Gurean, ELBren *Laborari* astekariak azaldu du ondoen. Giboulotek deklaratu du *Laborarin*: “Ingurumena zaintzeak ez luke egon behar epaileen errepresioaren mende”.

Dena hasi da frantsesez *Flavescence Dorée* deitzen duten eritasunagatik. Ingeleseiz ere frantsesezko izena darabilte, espainolez *Flavescencia Dorada* deitzen diote. Itzali samarra zirudien arren gaixotasuna berriro piztu da, antza, Frantziako hegoaldean: mahastondoak gorritu edo horitu egiten dira, enborra ahultzen zaie, lorea galtzen dute, mahats aleak ihartzen... Eritasuna *Cicadelle* (*Scaphoidens titanus*) izeneko matxin-salto berezi batek hedatzen du.

2013ko ekainean Cote d'Orreko prefetak delibero gogorra hartu

zuen: departamenduko mahastizain guztiek zabaldu beharko zuten intsektizida *Cicadelle* xomorren arrasto oro desegiteko. Agindua ez zuen bete Giboulotek.

“Arazoa da –deklaratu dio *Laborariri*– xomorro horren kontrako botiketan gutxien kutsatzen duenak ere erleak eta bestelako fauna akabatzen dituela. Bizkarroietatik defenditzeko mahastiari laguntzen dioten xomorro guztiak suntsitzen ditu. Nik hogeita hamar urte baino gehiago daramat gure mahastien oreka biologikoa zaintzen, emaitza oso onekin eta kimikorik usatu gabe”. Matxinsaltoari aurre egitea erabaki zuen nekazaritza biodinamikoaren arma naturalez.

Kontua da uztailaren 30ean Laborantza saileko ikuskariaren kontrola izan zuela Giboulotek. Hark eskatu zizkion *Pyrivert*aren fakturak. Ez zeuzkan: eta ardogileak argi adierazi zion ez zituela mahastiak derrigorrezko botika horrekin tratatu. Ikuskatzaileak prokuradorearen –fiskalaren– aurrean salatu zuen laboraria. Justiziaren gurgila abiatua zen.

Ardogile batek zerbait behar ez badu epaileekin arazoak dauzkala zabaltzea da. Are gutxiago osasun publiko afera batengatik. Giboulotek aitortu du lur jota geratu zela epaileen deia jasota.

Dijongo epaileak apirilean jakinaraziko duen erabakiaren zain bizi den Emmanuel Giboulot –*Rue89*tik hartutako argazkian ageri da Beaune hiri inguruan dauzkan mahastietako batean– ez da bazterreko nekazari ezezagun bat. Bere 51 urteekin Borgoinako mahastizain ezagunenetakoa da, eskualdeko ardo onenen ordezkariekin batera eramana dute munduan zehar. 1985etik ari da ekologikoan, 1996tik zehazkiago. Ola Bergman kazetariari 2008an aitortu zion bere mugez jabetzen zela: “Inor ez dago osoki babesturik. Inguruan beste mahastizainik ez banu ere, hai-zeak edo euriak dakarrenetik ezin nau inork babestu. Baina norberak ere asko hobetu ditzake gauzak, lurzorua hobetuz eta mahastondoak xomorren aurrean sendotuz”. Giboulot hasi zenean bakarra omen zen ekologikoan; gaur Beaune eskualdean hamarretik bat omen dira. Esan gabe doa asko arriskatu duela agintariei aurre eginda.

Baina albistea zabaltzearekin beste gurgil bat ere abiatu zen, solidartatearena. Protection de la Santé Naturelle (Osasun Naturalaren Babesa) elkarteak sustengatzeko dei eginik, aste gutxiren bueltan 480.000 sinadura bildu ziren. Berpizturik, biodinamikoan ari den mahastizainak ekin zion bere mezua zabaltzeari.

“Agintariei bezala herritarrei erakutsi behar zaie nekazaritza arduratsu batek ezin duela bere ingurumena suntsitu. Xomorroak kalitza, batik bat erleak eta polinizatzaileak, berez hauskorrak diren ekosistemak suntsitzea da, natura hondatzea, bizia bera, tartean gizakiarena”.

Kimikaren inkisidore berriak

Ez dira Gibouloten iritzi berekoak gainerako mahastizain gehienak. Borgoinako ardogileen elkarteak prentsaurrean argi utzi nahi izan zuen ez dutela onartzen Gibouloten hautua, bereari soilik begiratzuz eta gainerakoena ahaztuz oso modu berekoian jokatu duela, *Pyrivert* usatzen dutenak ez direla kutsatzaileak eta premiazkota dela eskualdeko mahastiak arriskuan ezartzen dituen eritasunari atea ixtea.

Emmanuel Gibouloten kasua epaiaren zain dago. Ziurrenik ez da hiru astetan argituko, epaiari helegitea ezartzea ere posible delako.



tzizkoa proposatzen duenik. Erlearen eta *Varroaren* kasuan, azkenean ostalariak eta bizkarroiak —erleak eta zorriak— elkarbizitzen ikasi beharko dutenez, era kontrolatuan elkarrekin bizitzen laga behar zaiela dioten adituak.

Orobat gertatzen da txertoekin. Ez da erraz tenkatzeko gaia, jokabide bat defenditzen dutenek bezala bestearen aldekoek dauzkate beren kontraesanak.

Laborari astekarian bertan kontraesanok xumeki aitortu ditu Maritxu Castillon Biharko Lurra-
ren Elkartearen (BLE) lehendakari eskiulatarrak: “70 ardi galdu ginituen. Xertatzera bortxatuak izan ginen galtze horien ondotik. Ez ginuen gogo onez egin bena beldurra sartua zen gure baitan, galtzeak inportantak ziren. Behietan ere, xertoaren ondorioz haatik, 10 bat xahal eta sei behi galdu ginituen. Xahalak data beno lehenago sortzen ziren, edo ez finituak, drolezia batekin. Behi zonbaitek zezena ez zuten hartzen edo berantarekin. Xertoaren gain eman ditugu gauza horiek, geroztik ez baitira berriz gertatu”.

Gibouloten aldeko aldarrikapean ELBk gogorarazi du derrigorrezko botika eta txertook funtsean loturik daudela laborariaren betiko ezagutzak garatzeko ordez nekazaritza osorik beren mende nahi duten multinazionalen interesekiko. Agintariak laguntzen diete disidente eta intsumituak pertsegituz, izan asun-zukua erabili nahi dutenak edo botika sintetikoek uko egiten dietenak. ■



Baina gauza da ongarri eta botika kimikoetan ari den nekazaritza maioritarioari uko egiten dioten laborariaren auziak ugaritzen ari direla.

Batzuetan nekazari kritikoak berak dira epaitegira jo dutenak, esaterako labore transgenikoen kontra. Izan ere, gero eta garbiago dago genetikoki eraldatutako organismoak baimentzen diren eremuen inguruetan OGMrik gabeko laborantza egiten dutenen jarduera kasik ezinezko bihurtzen dela, batak beste kutsatzen duelako.

Baina gero eta gehiagotan nekazaritza industrialaren defentsan agintariak hartutako neurriak bete nahi izan ez dituztenak dira arazotak nozitzen dituztenak. Adibideak

mila dira, nahi gabe OGMz kutsatutako haziak ereiteagatik auziperratuetatik hasi eta derrigorrezko botikak erabiltzeari uko egiten diotenetara. Sarri agintariek gain ofiziko kideak ere oldartzen zaizkie.

Auzitara iritsi gabe ere, edozein erlezain amateurri iritsi zaizkio osasun agintarien eta beste erlezainen presioak mundu osoan pandemia bihurtu den *Varroaren* kontrako botikak erabili ditzan, “hik ez erabiltzeagatik inguruko erleak kutsatzen dituk-eta” argudiopean.

Ulertzekoak dira laboreak edo aziendak epe laburrean bizirik nahi dituenaren arrangurak. Baina, aldi berean, derrigortu nahi den terapia bakoitzeko ia beti dago ekosistemaren ikuspegi zabalagotik alderan-





**ZINKUNEGI
OPTIKA**

Hernani, 23 · 20004 Donostia
T. 943 420 624
info@zinkunegioptika.com
www.zinkunegioptika.com

zuri begira

Xabier Letona



DANI BLANCO

Gerra Hotzaren itzulera

KRIMEAKO erreferenduma mila-ka soldadu errusiarren zaintza-pean egin da eta ezin esan horiek direnik baldintzarik egokienak erreferendum bat egiteko, batez ere zaintzen duten lurraldea juridikoki beraiena ez denean, Ukrainarena baizik. Baina SESBren desagertzearen ondoren ere, soldadu errusiarrak ez dira inoiz Krimeatik erretiratu, batez ere Sobiet Batasunak Itsaso Beltzeko bere itsas base militarrek han zituelako kokatuak eta ondoren ere Errusiak hori adostu zuelako Ukrainarekin. Errusiar soldaduak Krimean atzera aurrera ibiltzea ohikoa izan da Ukraina independentea den azken 23 urteetan eta bertako herritarrei hori ez zaie batere arrotza egiten.

Ez dirudi, hala ere, inongo zalantzarik dagoenik populazio krimearren gehiengoak zer nahi duen, hau da, haientzat ama-Erussia denarekin bat egitea. Krimeako Legebiltzar autonomoak antolatutako kontsultaren datu ofizialen arabera, bozka esku-bidea duten herritarren %87,71k parte-hartu du erreferendumean eta %96,6 Ukrainatik banatzearen alde agertu da. Hurrengo urratsa Errusiako Legebiltzarrari Errusiarekin bat egitea izan da. Autonomia zabalarekin Ukrainan jarraitzeko aukera ere bazen erreferendumean, baina kanpainen inork ez du berau defenditu, besteak beste erreferenduma Krimeako Legebiltzarrak bakarrik antolatu duelako, Ukrainako gobernuaren akordio barik. AEBek eta Europako Batasunak ez dute erreferenduma onartu eta Errusiaren jarrera dela-eta zigorrak iragarri dituzte. Orain diplomaziaren orena da.

GERRA HOTZA itzuli da 25 urteren ondoren Europara, hori da egia eta hori egoeraren larria. Erreferendumaren ondoren apur bat urrundu bada ere, egiazko gerraren itzala Ukrainaren gainean da. Gertaerek argi erakusten dute XX. mendeko bigarren erdialdean SESBren eta AEBen artean izandako Gerra Hotzaren oihartzunak ez direla oraindik guztiz iraungi. Bi potentzien arteko mehatxu nuklearrak saihestu zuen —ozta-ozta hainbatean— bi blokeen arteko egiazko gerra, baina Mendebaldeko blokearen erabateko nagusitasunarekin bukatu zen norgehiagoka hura. Egiazki, eta Mendebaleko iturrie-

Ukrainarren arteko elkarrizketa zabal eta librea ezinbestekoa da, eta prozesu hori orain arte desagertua dagoen NBErekin egitea ere bai

tatik behin eta berriro parekotasuna saltzen saiatu bada ere, bi blokeen oreka ez zen inoiz existitu, ez arlo militarrean eta zeresanik ez ekonomikoan; AEBek ondo baino hobeto baliatu zuten beren nagusitasuna eta arma lasterketa SESBren garapena ahultzeko eta honek bere garapen ekonomikoa konkista sozialetan inbertitu ez zezan.

Baina SESBek armada oso indartsua garatu zuen eta, batez ere, AEBak suntsitzeko adina arma nuklear estrategiko; hau da, SESBeko lurraldetik bertatik AEBak suntsitzeko adina arma nuklear. SESB hondoratu ondoren, Errusiak jarraitu du mehatxu ahalmen horrekin eta AEBek behin eta berriro segitzen dute saiatzen errusiarren ahalmen hori

nola ahulduko duten pentsatzen. Hor kokatzen da Errusiaren arma estrategikoak kontrolatu ahal izateko Europako ekialdean zabaltzen jarraitzen duen sarea, hasi Baltikotik eta Mediterraneoaraino, tartean Itsaso Beltzetik pasatuz. Gerra Hotzaren oinordeko den borroka geostrategiko horretan dago Ukrainaren egungo klabeetako bat. Errusiak kito esan die AEBei eta EBri eta hordagoa bota du, indar erakustaldia eginez eta, bidez batez, bere interesak babesteko Krimearena moduko xake mugimenduak bideratuz.

Baina ez dago ez klabe bakarrik ezta egia bakarrik ere. AEBek eta EBk ahaleginak eta bi egin dituzte on eta gaiztoen arteko filma barreiatzen: 2013an EBrekiko akordioa arbuia zutenak errusiarren menpeko gaiztoak, eta honen alde egin zutenak onak, egiazki erakutsi gabe


Ukraina bera oso banatua dagoela EBera eta Errusiara begiratzen duten indarren artean. Areago, Viktor Yanukovitxen gobernu ustel baina legitimoaren aurkako sasi-estatu kolpea lagundu eta sostengatu zuten, besteak beste eskuin muturra Kiev-eko gobernura eramanez.

Ukrainak barne kohesio arazo handiak ditu eta Errusia eta AEBak eta EBren arteko tira-bira militar eta ekonomikoek ez dute laguntzen tentsio horiek baretzen. Oraingo korapilotik bake bidez ateratzeko, ukrainarren arteko elkarrizketa zabal eta librea ezinbestekoa da eta prozesu hori orain arte desagertua dagoen NBERen bitartekaritzarekin egitea ere bai. ■



ASTE HONETAKO

zozketa



Argiako harpidedunentzat



HAMLET Donibane Garazi

2 lagunentzako bina sarrera
Apirilak 4 · 20:30
Le Vauban

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

1




HAMLET Markina

2 lagunentzako bina sarrera
Apirilak 5 · 21:30
Uni Frontoia

Artedrama Kultur Leioa
Juan Ramon Aketxe plaza, 11
Leioa BIZKAIA

www.artedrama.com

2



Iruñeko Planetarioa

3 lagunentzako
bina sarrera

Antso Ramirez, z/g
Iruñea NAFARROA

www.planetario.org

3



EUREKA! zientzia museoa

2 lagunentzako
bina sarrera

Mikeletegi, 43
Donostia GIPUZKOA

www.eurekamuseoa.es

4



Okatxu

2 komiki opari

www.argia.com/denda

5

AZKEN IRABAZLEAK (2406. Argia)

OIHARTE Sagardotegia

- Joxemi Saizar Arostegi (Tolosa)

HAMLET - BIARRITZE

- Mikel Escudero Aizpurua (Deba)
- Alberto Ugarte Otazua (Bilbo)

EUREKA! Zientzia Museoa

- Ander Epelde Ezenarro (Soraluze)
- Jose Mari Etxezarreta Zelarain (Donostia)

NEIGHBOR Ura patrikan CDa

- Asier Iturriaga Zugaza-artaza (Abadiño)
- Aintzane Linaza Etxeberria (Gasteiz)
- Ramon Andrinua Lazkano (Bilbo)
- Marisa Ibarburu Uranga (Donostia)
- Andone Barandiaran Arratibail (Pasaia)

BIXENTE AMEZTOY Argia azalak

- Santos Mendia Agirre (Tolosa)
- German Kortabarria Igartua (Getxo)

* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 37 15 45 • guinea@argia.com

www.argia.com/guinea

guinea

argia



MIKEL URDANGARIN

PAGOA ARETOA
OIARTZUN
Apirilak 5
22,30etan

Preziorik onena
 **argia** dendan

~~15€~~ 9€

Eskuratu zure sarrera:
☎ 943 37 15 45
denda@argia.com

Antolatzailea:

Laguntzaileak:

